

Ispiluak,
mundu ia ororen historia



Eduardo Galeano

ISPILUAK
MUNDU IA OROREN HISTORIA

Itzultzailea
Xabier Alegria



JATORRIZKO EDIZIOA
Especjos, una historia casi universal
Siglo XXI editores, Mexico DF, 2008

LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2013ko maiatza

© Eduardo Gleanok OBRARENA
© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Xabier Alegriak ITZULPENARENA

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.
San Isidro, 35-1A
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

GURE LIBURUAK E.M.
www.gureliburuak.com

ISBN
978-84-15313-54-0
LEGE GORDAILUA
NA. 844-2013

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

Azala egiteko Nigeriako Ife hirian
dagoen Museo Nazionaleko eskul-
tura yorubar bati Daniel Jorge
Marques Filhok ateratako argazkia
erabili dugu

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
Graficas Lizarra
Tafallako errepeidea 1. Km.
31132 Villatuerta - Nafarroa

txalaparta 

Hemen ez dira iturri bibliografik oak ageri. Ezabatu besterik ez nuen izan. Garaiz ohartu bainintzen liburu honetako ia seihun kontakizunek baino orri gehiago beteko zutela.

Ispiluak egitasmo ero hutsa baino zerbait gehiago izatea ahalbideratu zuten laguntzaile ugarien zerrenda ere ez dago . Ezin aipatu gabe utzi, ordea, behin baino gehiagotan lotsak agerian geratzetik libratu nindutenak, azken eskuizkribua irakurtzeko egonarria beren gain harturik: Tim Chapman, Antonio Doñate, Karl Hübener, Carlos Machado, Pilar Ro yo eta Raquel Villagra. Beraiei eta zeregin ezinezko hau ahalbideratu duten lagun zenbatezinei eskainia da liburua.

Eta Helenari, biziki.

Montevideon, 2007 urteko hondar egunetan

Aita, margoidazu mundua soinean.

Hego Dakotako jatorrizkoen kantua

Ispiluak jendez lepo.
Ikusezinek gaituzte ikusten.
Ahantziek oroitzen.
Gure burua ikustean, haiek ditugu ikusten.
Gu joatean, badoaz?

Gogozko gara

Bizia, izenik gabe, oroimenik gabe, bakar-bakarrik zen.
Eskuak zituen, baina nor ukitu ez. Ahoa zuen, baina norekin
mintzatu ez. Bizia bat zen, eta bat izanik bat ere ez zen.

Orduan gogoak arkuz egin zuen jaurti. Eta gogoaren
geziak erdibitu zuen bizia, eta bizia bi izan.

Biok elkar aurkitu eta barre egin zuten. Barregura pizten
ziren elkar ikusteak, baita ukitzeak ere.

Jai handiko bideak

Adam eta Eba beltzak ote ziren?

Afrikan abiatu zen jendearen bidaia munduan. Handik
abiarazi gure aitona-amonek planetaren konkista. Bideek hel-
mugak sortu zituzten eta eguzkiak kolore banaketan ihardun.

Gizon-emakumeok gaur, lurrek o ortzadar, zeruko ortzadarra baino anitz koloretsuago gara; baina etorkin afrikarrak guztiok. Zuri-zurienak ere Afrikatik datoz-eta.

Elkarren gure jatorria gogoratzeari uk o egiten diogu agian arrazakeriak amnesia sortzen duelak o, edo sinestezi-na iruditzen zaigulako garai urruti haietan mundu osoa zela gure erresuma, mugarik gabeko mapa neurrigabe, eta gure hankak derrigorrezko pasaporte bakarra.

Bazter-nahaslea

Bazterturik zeuden zerua eta lurra, ongia eta gaizkia, jaiotza eta heriotza. Gaua eta eguna ez ziren nahasten, eta emakumea emakume zen eta gizona gizon.

Baina Exû, bidelapur ibiltaria, olgetan zebilen, eta egun ere halaxe dabil, nahaste-borraste debekatuak korapilatzen.

Haren bihurriketiek mugak ezabatzen dituzte eta jainkoek bereizitakoa lotzen. Haren ekinez eta graziaz, eguzkia belztu eta sug arretan gaua piztu, eta gizonen azaletik emakumeak dira ernetzen, eta emakumeei gizonak darizkie izerdi. Hil dena jaio, jaio dena hil, eta sortutako edo sortzeko den orotan ifrentzua eta aurkia dira nahas , agintzailea nor den eta nor agindupeko ez jakiteraino, ez non den goia, ezta behea non den ere.

Goiz baino berant, araubide jaink otiarrak bere mailak eta bere geografiak berrezartzen ditu ordea, eta gauza bakoitza bere lekuan jarri eta bak oitza bereari lotu; berant baino goizago aldiz, berrageri ohi da erotasuna.

Orduan jainkoei damu zaie mundua hain gobernagaitza izatea.

Haitzuloak

Sabaitik zintzilika estalaktitak. Zorutik gora estalagmitak.

Denak kristal hausk orrak dira, haitzen izerdiak sortuak, mendietan urak eta denborak urraturik o haitzuloetako sako-
nean.

Milaka urte daramate estalaktitek eta estalagmitak ilun-
pean elkarren bila, tantaz tanta, batzuk gora, behera besteak.

Batzuei milioi bat urte joango zaie elkar ukitzerako.

Estu eta larri, ez.

Sua sortu

Haitzuloetako garaietan harriak edo abarrak igurtziz sua
sortu genuela irakatsi zidaten eskolan.

Harrez geroztik ari naiz saiatzen. Egundo ez dut txinpar-
tatxorik xumeena ere ateratzerik lortu.

Nire porrot pertsonalak ez dit g alarazi suak eginik o
mesedeak eskertzea. Hotzetik eta pizti etsaieng andik babes-
tu gintuen, janaria erre-egosi zigun, gaua argitu eta suton-
doan, elkarrekin esertzera gonbidatu.

Edertasuna sortu

Hantxe dira, haitzuloetako hormetan eta sabaietan margotuta.

Bisonteak, altzeak, hartzak, zaldiak, arranoak, emaku-
meak, gizonak. Irudi hauek ez dute adinik. Duela milaka eta
milaka urte jaioak, baina birjaio egiten dira inork begiratzen
dien oro.

Nola ahal izan zuten, gure antzinak o aitonek, hain era
dotorean margotu? Nola ahal izan zituzten, basapiztien
aurka esku hutsez borrokatzen ziren astapotro haiek, hain

irudi airosoak sortu? Nola ahal izan zituzten haitzetatik ihes airean doazen marra hegalariaiok marrazterik? Nola ahal izan zuten...?

Ala amonak ziren?

Saharako berdetasunak

Tassilin eta Saharak o beste zenbait eskualdetan labar -pinturek behi, zezen, antilope, jirafa, errinozero, elefante, eta abarren irudi dotoreak eskaintzen dizkigute, duela sei mila urtez geroztik edo.

Animaliok irudimen hutsezkoak ote ziren? Harea zen akaso basamortuko biztanleek edaten zutena? Eta jan, zer? Harriak?

Zera esaten digu arteak, basamortua ez zela basamortu. Bertoko aintzirek itsaso ziruditen eta bertoko ibarrek bazkari eskaintzen zieten geroago hegoalderantz, galdutako berdetasunaren bila, migratu behar izan zuten animaliei.

Nola izan genuen?

Aho izan, ala ahamen, ehiztari ala ehiza. Hortxe zegoen koska.

Mespretxua genuen merezi, errukia gehienez jota. Izarpe etsaian, inork ez gintuen errespetatzen, inork ez gure beldur. Gauak eta oihanak izutzen gintuzten. Lurreko zoologiako piztiarik minberenak ginen, kumeak ezdeus eta umoak eskas, ez atzaparririk, ez letagin handirik, ez hanka arinik, ez usaimen luzerik.

Lanbroan galtzen zaigu gure lehen historia. Dirudienez, harriak hautsi eta makilakadak barreiatzea besterik ez zen gure jarduna.

Baina badago galdetzerik: Ez ote genuen bizirauteirik izan, bizirautea ezinezkoa zenean, hain zuzen ere elkarrekin

babestu eta janaria partekatzen jakin genuelako? Egungo jendeteria honek, ahal duena salba bedi eta bakoitza berearri loturikoz zibilizazio honek, iraungo ote zukeen munduan unetxo batez harago?

Adinak

Jaio baino lehen zaigu gertatzen. Gure soinetan, forma hartzen hasi direlarik, zikatzen antza duenik ageri ohi da, baita isats modukorik ere. Labur irauten dute apendizak erantsiok, ageri eta erori.

Agerpen galkor hauek, inoiz arrain eta inoiz tximino izan ginela dioskute? Lehorraren konkistara abiataturikoz arrain? Oihana utzitako edo berak gu utzitako tximino?

Eta haurtzaroan sentitu ohi dugun beldurrak, orori beldur, ezdeusari beldur, inoiz jan izanari genion beldurra digukontatzen? Iluntasunaren ikara eta bakardadearen larria, antzinako babesgabetasun haren oihartzunak ote?

Dagoeneko heldu antzean, ikaratiok ikara dugu sortzen. Ehiztari bilakatu da ehizatua, ahamena aho. Mehatxupean gintuzten behialakoz mamutxoak giltzapeturik ditugu egun. Gure zoologikoetan bizi dira, eta gure banderen eta gure ereserkien apaingarri dira.

Lehengusu-lehengusinak

Ham, espazio sideralaren konkistatzailea, Afrikan harrapatu zuten.

Bera izan zen mundutik urrutira bidaiaturikoz lehen tximinoa, lehen tximonauta. Mercury kapsulan sartuta joan zen. Telefono zentral batek baino kable gehiago zuela.

Onik itzuli zen mundura eta beraren gorputzaren funtzio ororen jasotzeak ongi frogatu zuen jendekiok ere espazioan barna bizirauteko gai garela.

Ham *Life* aldizkariaren azala izan zen, eta harrezkero zoologikoetako karioletan igaro behar bizitza.

Aitona-amonak

Afrika beltzeko herri asko orentzat, bizirik diren izpirituak dira arbasoak, zure etxe ondoan hazten den zuhaitzean bizirik edo larrean bazkan ari den behiarengan. Mendian sigi-saga emari den errekatxoa da, egun, zure birbirraitona-amonaren birraitona-amonak. Eta zure munduko bidaiari bidelagun izan nahi duen izpiritu oro ere izan daitezke zure arbaso, ez senide ez ezagun izan ez arren.

Familiak ez du mugarik, azaltzen du Soboufu Some dagara herrikoak:

—*Gure haurrek guraso ugari dituzte. Nahi adina.*

Eta antzinako izpirituak, ibiltzen laguntzen dizuten horiek dira norberak dituen aitona-amonak ugariak. Zuk nahi adina.

Zibilizazioaren historia laburra

Eta nekatu ginen basoetan eta ibaiertzetan barna noraezean ibiltzeaz.

Eta han-hemenka gelditu ginen. Herrixkak asmatu genituen, eta komunitate bizitza. Hezurra jostorratz bihurtu genuen eta eztena arpoi, lanabesak eskuaren luzagarriz, eta kirtanak biderkatu zuen aizkoraren, aitzurraren eta aiztoaren indarra.

Arroza, garagarra, garia eta artoa erein genituen, eta itxituran hesitu ardiak eta ahuntzak, eta bihiak biltegietan gordetzen ikasi, garai latzetan gosez ez hiltzeko.

Eta landutako lurretan ugalkortasun jainkoaren gurtzaile zintzo izan ginen, aldaka zabal eta titi oparodun emakumeak

ziren haiek, baina denborak aurrera egin ahala, guda jaink o arrek bazterturik gelditu zirenak. Eta gorazarre ereserkiak kantatu genituen, aintza erregeei, guda buruzagiei eta goi apaizei.

Eta asmatu genituen *nire* eta *zure* hitzak eta izan zuen ugazabarik lurrak, eta emakumea gizonaren jabego bihurtu, eta aita haurren jabe.

Noraezean, ez etxe ez helmuga genbiltzan garaiak atzean geratuak ziren, oso.

Zibilizazioaren emaitzak harrig arriak ziren: gure bizitza ziurragoa zen baina askatasunez urriagoa, eta ordu gehiagoz aritzen ginen lanean.

Kutsadura sortu

Pigmeoek, gorputza labur eta oroimena luze, denbora aurretiko garaiak oroitzen dituzte, lurra zeruaren g ainean zegonekoak.

Hauts eta zabor euria ari zuen eteng abe lurretik zerura, jainkoei etxea zikindu eta janaria pozoitzen ziela.

Betierekoaldia zeramaten jaink oek hustuk eta lohi hori pairatzen eta egonarrria ahitu zitzaien.

Tximista jaurti zuten, lurra bitan zatitu zuena. Eta lurtarte irekiaz gora eguzkia, ilargia eta izarrak bidali zituzten, eta beraiek ere igo ziren bide beretik. Eta han goian, gugandik urruti, gugandik salbu, sortu zuten jaink oek beren erreinu berria.

Harrez geroztik, azpian gaude.

Jendarte klaseak sortu

Lehendabiziko garaietan, gose g arriak, lur aztarrika ari zen lehen emakumea eta orduan eguzki printzek ernaldu zuten atzetik. Berehalako batean, jaio zen umetxoa.

Pachacamac jainkoari ez zitzaion batere gustuk o eguzkiaren adeitasun hori, eta birrindu zuen jaioberria. Gorputxotik, lehenengo landareak ziren ernatu. Haginak arto ale bihurtu ziren, hezurak juka eta haragia patata, batata, zapallo...

Ez zuen luze jo eguzkiaren sumina agertu orduko. Peru-ko itsasertza suntsitu zuten haren izpiek eta behin betirako eremu utzi. Eta lurraldeotan eguzkiak hiru arrautza hautsi zituenean burutu zen mendekua.

Urrezko arrautzatik, ugazabak ziren atera.

Zilarrezko arrautzatik, ugazaben ugazabandreak.

Eta kobrezko arrautzatik, lan egiten dutenak.

Agindupekoak eta ugazabak

Kakaoak ez du eguzkirik behar, barruan darama-eta.

Barruko eguzkitik datoz txokolateak ematen dituen atsegina eta poz beteak.

Elixir mamitsuaren monopolioa zeukaten jainkoak, han beren garaietan, eta zigorturik geunden jendeok hura ezagutu gabe.

Quetzalcoatl izenekoak ebatsi zuen toltek entzat. Beste jainkoak lotan ziren bitartean, berak kakao hazi batzuk altxatu zituen eta bere bizarrean ezkutatu, eta armiarma hari luze batez lurrera jaitsirik Tula hiriari oparitu zizkion.

Quetzalcoatlen oparia usurpatu zuten printzeek, apaizek eta guda buruzagiek.

Berauen ahosabaiak soilik izan ziren hura hartzeko duin.

Zeruko jainkoak hilkeria debekatua zieten txokolatea, eta lurraren jabeek jende xehe eta larrekoari debekatu.

Menperatzaileak eta menperatuak

Jaungoikoak hautatutako herria, Jaungoikoaren ume-herria Israel izan zela dio Jerusalemeko Bibliak.

Eta bigarren salmoaren arabera, herri hautatu horri eman zion mundua menderatzeko ahala:

*Eskaidazu, eta oinordetzan emango dizkizut herriak
eta lurreko mugalde ororen jabe zaitut egingo.*

Atsekabe ugari ematen zion baina Israelgo herriak, esker txarreko eta bekatari. Eta mihi g aiztoek diotenez, mehatxu, madarikazio eta zigor asko eta gero, Jaungoikoari egonarrria ahitu zitzaion.

Harrezkerotik beste herri batzuk ere aldarrikatu izan du opariaren jabeagoa.

1900 urtean, Albert Beveridgek, Estatu Batuetako senatarriak, zera jakinarazi zuen:

—Jaungoiko Guztiahaldunak bere herri hautatutzat bereizi gaitu, hemendik aurrera munduaren onbideratzea gida dezagun.

Lan banaketa sortu

Manu erregea izan omen zen Indiak o kastei ospe jaink otiarra eman ziena.

Bere ahotik, apaizak sortu ziren. Besoetatik, erregeak eta gudariak. Izterretatik, merkatariak. Oinetatik, mirabeak eta artisauak.

Eta harrezkerotik eraiki zen jendarte piramidea, Indian hiru mila solairu baino gehiago duena.

Jaio behar duen lekuan jaio ohi da norbera, egin behar duena egiteko. Zure sehaskan duzu hilobia, zure jatorrian patua: aurreko bizitzek merezitako saria edo zigorra da zure bizitza, eta oinordetzak ezartzen dizu lekua eta zeregina.

Jokabide okerra zuzentzeko aholkatzen zuen Manu erregeak: *liburu sakratuetako bertsoak aditzekotan, berun urtua botako zaio belarrietara beheragoko kasta kideari; eta irakurtzekotan, mihia moztuko*. Pedagogiok ez dira honezkero

erabiltzen, baina gaur egunean ere bere lekutik ateratzen dena, maitasunean, lanean edo dena delakoa, hilik edo erdi hilik utzi dezaketen ageriko zigorren arriskupean da bizi.

Kastabakoak, bost indiarretatik bat, beherenekoak baino beherago dira. *Ukiezinak* deitzen diete, kutsatzen dutelako: madarikatuaren artean madarikatuak, ezin dira besteekin mintzatu, ez haien bideak ibili, ezta haien edalontziak eta platerak ukitu ere. Legeak ditu babesten, errealitateak egozten. Edonork umil ditzake gizonezkoak; emakumezkoak edonork bortxa, horretan oso ukigarriak baitira ukiezinak.

2004 urteko amaiera aldean, tsunamia Indiako itsasertzari oldartu zitzaionean, ukiezinak izan ziren zaborra eta hildakoak biltzearen arduradun.

Beti bezalaxe.

Idazketa sortu

Irak artean Irak ez zela, bertan jaio ziren lehen hitz idatziak.

Txori oinatzak dirudite. Esku iaioek zituzten marraztu, kanabera txotx zorrotzez, buztinean.

Suak zituen gorde, buztina labean erregorrituta. Suak akabatu eta salbu egiten du, hil dago eta bizia eman: jainkoen antzera, gure antzera. Suari eskatu, duela milaka urte ibai arteko lurralde horretan kontatutakoa egun ere kontatzen digute buztinezko taulatxoek.

Gure garaiotan, idazketa Texasen sortu izan zela sinetsita nonbait eta, George W. Bushen aurkako suntsitze gerra jaurti zuen zigorgabetasun betean. Milaka eta milaka biktimak izan ziren, ez bakarrik hezur eta haragizko jendea. Oroimen ugaria ere erail zuten.

Buztinezko taulatxo anitz, historia bizi-bizia, lapurtu edota bonbardaketetan txikitu zituztela.

Horietako batek zera zioen:

*Hautsa gara, deus ez
Egiten dugun oro, huts, haize*

Buztinezko gara

Antzinako sumertarrek sinetsitak oaren arabera, mundua bi ibairen arteko lurra zen eta bi zeruen artekoa ere bai.

Goiko zeruan, jainko agintariak ziren bizi.

Beheko zeruan, jainko langileak.

Eta horrelaxe izan zen, harik eta beheko jainkoak lanean bizi izateaz nazkatu ziren arte, eta historia unibertsaletan lehena greba lehertu.

Izu-ikara piztu zen.

Gosez ez hiltzek o, goiko jainkoek buztinez moldatu zituzten emakumeak eta gizonak eta eurentzat lan eragin zieten.

Tigris eta Eufrates ibaien ertzetatik jaio zituzten emakumeak eta gizonak.

Buztin horretaz ere ziren eginak hura kontatzen duten liburuak.

Liburu horiek diotenez, *buztinera itzultzean* datza hiltzea.

Egunak sortu

Irak artean Sumeria zela, denborak asteak izan zituen, asteek egunak eta egunek izenak.

Zeruko lehena kartak marraztu zituzten apaizek eta bataiatu argizagiak, konstelazioak eta egunak.

Hauen izenak jaso ditugu oinordetzan, mintzairaz mintzaira igarota, sumerreratik babilonierara, babilonieratik grekora, grekotik latinera, eta hola.

Jainko esana zioten haiek ortzian mugitzen ziren zazpi izarrei eta ortzi izenez esaten diegu, milaka urte ondoren, denbora mugitzen duten zazpi egunei. Aldaketa xumeak tarteko, egun ere asteko egunak jatorrizko izenei atxiki zaizkie:

Ilargi, Marte, Merkurio, Jupiter, Venus, Saturno, Ortzia. *Ilen, martitzen, eguazten, ortzegun, ortzirale...*

Taberna sortu

Irak artean Babilonia zela, emakume eskuak ziren mahaia-
ren arduradun:

*Garagardoa sekulan falta ez bedi,
etxea saldatan oparo
eta ogia ugari*

Jauregi eta jauretxeetan, *chefa* gizonetzkoa zen. Baina etxean ez. Emakumeak egiten zituen garagardo ezberdinak, gozoa, arina, zuria, horia, beltza, urtatua, baita saldak eta ogiak ere. Eta soberakina auzokoei eskaintzen zitzaien.

Denbora joan ahala, zenbait etxek salmahaiaik paratu zituzten eta gonbidatuak bezero bihurtu. Eta jaio zen taberna. Eta elkartzeko leku eta askatasun gune izan zen erreinutxo hau, etxearen zabalketa hau, non emakumea baitzen nagusi.

Tabernetan egosten ziren konspirazioak eta debekatutako maitasunak txirikordatzen.

Duela hiru mila eta zazpiehun urte baino gehiago, Hamurabi erregearen garaian, jainkoek berrehun eta lauogeita bi lege jakinarazi zituzten munduari.

Horietako batek zera agintzen zuen, tabernetako azpilotan partaide ziren apaiz emakumeak bizirik erretzeko.

Mahaiko mezak

Irak artean Asiria zela, Nimrod hiriko bere jauregian erregeak hogeitahi jakitoki berotzeko osaturik oturuntza eskaini zuen, berrogei hornigaiz lagundurik eta ardo zein garagardoetako hainbat ibaik bustirik. Duela hiru mila urteko kronikak diotenez,

haiek ere jan eta edan egin zuten jaink oez gain, hirurogeita hemeretzi mila, bostehun eta hirurogeita hamalau gonbidatu izan ziren bertan, denak gizonaezko, emakumerik bat ere ez.

Beste jauregi are zaharragotatik datoz sukalde maisuek idatzitako lehen errezetak. Apaizek adina botere eta ospea zuten hauek eta jaunartze sakratu antzek o beren f ormu- lek denbora eta guda hondoratzetatik salbu biziraun dute. Beraien errezetok oso iradokizun zehatzak utzi dizkigute (*orea marmitan lau hatzetaraino harro dadila*) eta ez horren- bestekoak batzuetan (*gatza aliritzira bota*), baina guzti-guz- tiak honelaxe dira bukatzen:

Mahairatzeko prest.

Duela hiru mila eta bostehun urte, Aluzinnu pailazoak ere utzi zizkigun bere errezetak. Tartean, urdaiki sotilen ira- garkizun hau:

Urteko azkenaurreko hileko azken egunerako , euli kakaz beteriko asto uzki hestearen pareko gutziarik ez dago.

Garagardoaren historia laburra

Atsotitz zaharrenetariko batek, sumertarren hizkuntzan ida- tziak, zurruta erabat errugabetzen du istripurik izatekotan:

Garagardoa ongi dago.

Gaizki dagoena bidea da.

Eta libururik zaharrenak dioenez, garagardoa eta ogia ezagutu artean basapizti hutsa izan zen Enkidu, Gilgamesh erregearen adiskidea.

Egun Irak esaten diogun lurraldetik Egiptora bidaiatu zuen garagardoak. Aurpegiari begi berriak ematen zizkionez gero, Osiris jaink oaren oparia zela uste izan zuten egiptoa-

rrek. Eta g aragar-ardo hura ogiaren haurride bizkia zenez, *ogi urtua* esaten zioten.

Ameriketako Andeetan, ofrendarik antzinak oena da: betidanik eskatzen du amalurrak arto-ardo den txitxia isuriaz, *chichaz* busti dezaten, bere egunak alaitzeko.

Ardoaren historia laburra

Arrazoizko zalantzek ekiditen digute jakitea sagarra ala mahatsa izan ote zen Adamen tentagarri.

Badakigu, ordea, Harri Aroan jada bazegoela ardorik mundu honetan, inoren laguntzarik gabe mahatsak irakin egiten zirenean.

Antzinako kantu txinatarrek ardoa gomendatzen zuten goibelen minak arintzeko.

Horus jainkoak begi bat eguzkizko eta bestea ilargizko o zituela sinesten zuten egiptoarrek, eta ilargi begiari ardo negarrak zerizkion, bizidunek lokartzeko eta hildakoei pizteko edaten zituztenak.

Mahatsondoa zen Persiako Ziro erregearen botere ikurra, eta greziar zein erromatarren jaiak ureztatzen zituen ardoak.

Jendearen maitasuna ospatzeko, Jesusek sei peg arretako ura ardo bihurtu zuen. Bere lehen miraria izanik.

Betiko bizi nahi izan zuen erregea

Denbora, gure emagina izana, borroko dugu izango. Atzo denboraz edoski ginen eta bihar berak gaitu jango.

Horrelaxe da eta kito, eta ongi baino hobeto dakigu.

Badakigu?

Munduan jaiotako lehen liburuak Gilgamesh erregearen abenturak kontatzen ditu, hiltzeari uko egin ziola.

Ahoz aho ibili zen balentria hau, duela bost mila urtetik edo, sumertarrek, akadiarrek, babiloniarrek eta asiriarrek idatzia.

Eufrates ibai ertzeko monarka, jainkosaren eta gizonaren semea zen Gilg amesh. Jainko gogoa, jende patua: jaink osarengandik boterea eta edertasuna zituen jarauntsi, eta gizonarengandik heriotza.

Hilkorra izateak ez zuen harentzat garrantzi izpirik izan, Enkidu lagun mina bere egunen azkenera heldu zen arte.

Balentria ikarag arriak elkarrekin bizi izanak ziren Gilgamesh eta Enkidu. Elkarrekin sartu ziren Zedroen Basoan, jainkoen bizilekura, eta g araitu egin zuten erraldoi zaindaria, beronen orroak mendiak ere ikaran ohi zerabiltzan arren. Eta elkarrekin umildu zuten Zeruko Zezena, ufa bakar batez ehun gizon bertara amilaraztek o moduko hobia irekitzeko gai zena.

Enkiduren heriotzak abaildu zuen Gilg amesh, eta izutu. Bere lagun ausarta buztinezk oa zela ikusi zuen eta bera ere halaxe zela, buztinezko.

Eta bidera atera zen, betiereko bizitzaren bila. Hilezkortasunaren xerkatzaileak eremu eta basamortuak ibili zituen nora ezean,

argia eta iluna zeharkatu,
ibai handiak nabigatu,
paradisuko lorategiraino heldu,
sekretuen ugazabandreak, maskaraturik o tabernariak
zion zerbitzatu,

itsasoaren ifrentzura zen ailegatu,
uholdetik biziraundako txaluparia zuen ezagutu,
zaharrei gaztetasuna ematen zien belarra aurkitu,
iparraldeko izarren bideari eta hegoaldeko izarren bideari
zien jarraitu,

eguzkia sartzen den aldeko atea ireki eta eguzkia badoan
aldeko atea zarratu.

Eta izan zen hilezkorra, hil zen arte.

Hilezkortasunaren beste pasadizo bat

Maui, Polinesiako uharteen sortzailea, erdi gizon erdi jaink o jαιο zen, Gilgamesh bezala.

Larri oso ohi zebilen eguzkia ortzian poliki ibiltzera behartu zuen bere jainko erdiak, eta amuz arrantzatu zituen Zeelanda Berria, Hawaii, Tahiti, eta bata bestearen atzetik itsas hondoetatik erauzi, eta dauden lekuan jarri.

Baina bere jende-erdiak heriotzara zigortzen zuen. Mauik bazekien jakin, eta bere balentriek ez zioten ahanzteko laguntzarik ematen.

Hine, herio jaink osaren bila bidaiatu zuen lurrazpik o mundura.

Eta aurkitu zuen: itzel, lainopean lo. Santutegia zirudien. Bere gorputzerako ate ezkutu g aineko uztaia osatzen zuten belaun gakotuek.

Hilezkortasunaz jabetzeko, oso-osorik sartu beharra zegoen herioarengan, berau alde alde zeharkatu eta beronen ahotik irten.

Ebakidura latz erdi irekia zen atearen aurrean, arropaz eta armez erantzi zen Maui. Eta sartu zen, biluzik, eta tatarrez irrist zegien, poliki-poliki, iluntasun heze eta suharrezko bidean barna, jainkosaren muin sakona urratuz zihoala.

Baina bidearen erdian txoriak txorrotxioka hasi ziren, eta Hine esnatu zen, eta Maui erraietan nabaritu haztamuka, indusketan.

Eta ez zion egundo ateratzen utzi.

Malkozko gara

Egipto Egipto izan baino lehen, zerua eta berau zeharkatzen duten hegaztiak sortu zituen eguzkiak, baita Nilo ibaia eta bere baitan dabilzkion arrainak ere, eta bizi berdea eman zien haren ertz ilunei, landarez eta animaliez jantzi zirela.

Orduan eguzkia, biziaren egilea, eseri egin zen bere eginari so.

Mundu jaio berriaren arnasa sak ona sumatu zuen eguzkiak, bere begien aurrean ernatuz, eta haren lehen ahotsak ere entzun zituen.

Halako edertasunak min ematen zuen.

Eguzkiaren malkoak lurrera jausi ziren eta buztin bilakatu.

Eta buztin hori, jende.

Nilo

Faraoiaren esaneko zen Nilo . Hura baitzen Egiptori, urtez urte, emankortasun harrigarria itzultzen zioten uraldien bide urratzailea. Baita hil ondoren ere: zirrikitu batez lehen eguzki printza faraoiaren hilobian sarturik, eta beronen aurpegia pizturik, hiru uztaz erditzen zen lurra.

Horrelaxe zen izaten.

Ez dagoeneko.

Deltako zazpi adarretatik bik bakarrik baitiraute, eta emankortasunaren aldi sakratuetatik, honezkerok ez aldirik ez sakraturik, munduko ibai luzeenaren aldeko aintza ereserkiak baino ez:

Zeuk asetzen duzu artalde ororen egarria.

Zeuk edaten begi ororen malko-arpuluak.

Atzar, Nilo, orroa bedi zure ahotsa!

Entzun bedi zure ahotsa!

Mintzo den harria

Napoleonek Egipto indarrez hartu zuenean, haren soldaduetako batek, Nilo ertzean, harkaitz beltz bat aurkitu zuen, zeinuz betea guztiz.

Rosetta jarri zioten izena.

Jean François Champollion, galdutako hizkuntzetan aditua, haitz horren inguruan jira-biraka ibili zen gaztaroan.

Rosetta hiru hizkuntzatan zen mintzo . Bi argituak ziren engoitik. Hieroglifiko egiptotarrak ez, ordea.

Ulertezin zirauen piramideen sortzaileen idazk erak. Gezurrez jantzitako idazkera omen: Herodoto , Estrabon, Diodoro eta Horapolok beraiek asmatutako zuten itzuli, eta Athanasius Kircher apaiz jesuitak txorak eriaz beterikoa lau liburuki argitaratu. Denak bat zetozen hieroglifikoak ikur sistema bat osaturiko irudiak zirela ziur-ziur jakitean, eta haien adierak itzultzaile bakoitzaren fantasiaren menpe zeuden.

Zeinu mutuak? Gizon gorra? Champollionek g aztarosoan galdekatu zuen Rosetta haitza, isiltasun tematia besterik jaso gabe. Goseak eta etsiak jota zelarrik, egun batean sekulan inork aztertu gabeko aukera paratu zion bere buruari: Eta zeinu izateaz gain, hieroglifikoak soinu ere balira? Abedera bateko nola-halako hizkiak ere balira?

Egun horretantxe ireki ziren hilobiak, eta erreinu hila mintzatu.

Idatzi ez

Champollion baino bost mila urte-edo lehenago , Thot jainkoa Tebasera joan zen eta Thamus Egiptoko erregeari idazmena eskaini zion. Hieroglifiko horiek argitu eta zera esan zion, idazketa dela sendagairik onena oroimen txarraz eta jakinduria urriaz osatzeko.

Arbuiatu zuen erregeak oparia:

—Oroimena? Jakinduria? Asmakizun honek ahazmena du sortuko. Jakinduria egian baitatza, ez bere itxuran. Ezin oroi daiteke besteren oroimenaz. J endeek jaso egingo dute, baina oroitu ez. Errepikatu bai, bizi ordea, ez. Izango dira kontu askoren jabe, batere ezagutzeke.

Idatzi bai

Ganesha tripontzia da, gozokiak izug arri gustatzen zaizkio eta, elefante tronpa eta belarriak ere dituena. Baina jende eskuaz du idazten.

Sarbide zeremonien gidaria da bera, jendea zereginetan abia dadin laguntzen duena. Bera gabe ezertxok ere ez lukete hasierarik izanen Indian. Idazketan, beste orotan bezalaxe, hasiera da garrantzitsuena. Edozein abiapuntu bizitzakoro une loriatsu da, Ganeshak esana, eta gutun zein liburu bateko lehen hitzak, etxe edo jauretxeko lehen adreiluak bezain sortzaile.

Osiris

Idazkera egiptoarrak kontatu zigun Osiris jainkoaren eta beronen arreba Isisen istorioa.

Lurreko zein zeruko sendi kalapita sarri horietako batean hil zuten Osiris, eta zatikatu zuten, eta Niloko hondotetan barna galdu zen.

Isis, haren arreba, haren maitalea, uretan murgildu zen, eta haren zatitxo guztiak bildu zituen, eta banan-banan buztinez itsatsi, eta buztinez moldatu mentsu zena. Eta gorputza osaturik zegoenean, ertzean eratzan zuen.

Garagar- eta beste hainbat landare-ale zituen Niloko eragindako buztin horrek.

Osirisen soina, soinu-ernatua, altxatu zen eta ibili.

Isis

Osiris bezala, Egipton jabetu zen Isis jaiotze-etengabearen misterioez.

Beronen irudia dugu ezagutzen: jainkosa ama hau Horus bere seme-ari titia ematen, askoz geroago Ama Birjinak Jesus

eradoskiko duen bezala. Baina Isis ez zen inoiz oso birjina izan, egia esan. Osirisekin amodioa egin zuen, amaren sabelean elkarrekin osatzen ari zirenean, eta helduxeagotan ere hamar urtez aritu zen ogibiderik zaharrenean, Tiro hirian.

Ondorengo milaka urtetan, mundu zabala ibili zuen Isisek, urdangak, jopuak eta beste madarikatuak berpizteari lotuta.

Erroman tenpluak eraiki zituen behartsuenen auzoetan, putetxeen ertzean. Erauzi egin zituzten jaink otegiok, agindu inperiala tartek o, eta bertok o apaizak gurutziltzatu; baina mando egoskor horiek bizitzara itzultzen ziren, behin eta berriz.

Eta Justiniano enperadorearen armadak Nilok o Filae uharteko Isisen santutegia birrindu zuenean, eta hondarren gainean Doneztebe eliza katolikoa eraikiarazi, Isisen erronesek, hala ere, jarraitu egin zuten bertara joaten, beren jainkosa bekatariari gorazarre egitera, aldare kristauaren aurrean.

Errege goibela

Herodotok kontatu zuenez, Sesostris III.a faraoiak Europa osoa eta Asia osoa zituen menperatu, herri ausartei zakil bat ematen zielarik ikur-saritzat, eta k oldarrak, berriz, berauen hilerrietan alu bat zizelkatuz umiliarazirik. Eta hau guztia gutxi bailitzan, adeitsuki kiskali nahi izan zuen anaiak pizturiko sutetik onik ateratzek o, beren semeen gorputzen g ainetik igarotzeko gauza ere izan zen.

Horrek guztiak sinesg aitza dirudi, eta bada. Baina zera dago egiaztaturik ordea, faraoi honek ureztatze ubideak biderkatu zituela, basamortuak lorategi bihurtuz, eta Nubia konkistatzean Nilok o bigarren ur jauzitik harago hedatu zuela inperioa. Eta k ontu jakina ere bada Egipto sekulan ez zela izan horren indartsua eta bekaizkeriak horren joa.

Hala eta guztiz ere, Sesostris III.arenak dira aurpegi iluna erakusten duten estatua bakarrak, begiak larri, ezpai-

nak samin. Inperioko eskulturagileek betikotuta, beste faraoi guztiak lasai betean dira, euren bake zerutiarretik guri so.

Betiereko bizitza faraoien pribilegioa zen. Sesostrisen-tzat, agian, madarikazioa zen pribilegio hori, batek daki!

Oiloa sortu

Tutmosis faraoia Siriatik itzuli zen, Niloko deltatik Eufrates ibairainoko loria eta boterea eman zioten gudaldi suntsitzai-le horietako bat burutu ondoren.

Ohikoa zen eran, ontzi nagusiko brankan zekarten garai-tutako erregearen gorpua, zintzilik buruz behera, eta arma-dako itsasontzi oro opagaiz eta sariz lepo.

Oparien artean, inoiz ikusi g abeko txori eme bat ere bazegoen, gizen eta itsusia. Oparigileak horren aintza egin nahi izan omen zuen, antza:

—*Bai, bai* –onartu zuen, buru makur–. *Txori eme hau ez da ederra. Ez daki kantuan. Mokoa motza du, gandorra ergel eta begiak lelo. Eta beronen hegoak, lumak goibel, hegan egi-teaz ahantzi dira.*

Listu-jarioa irentsi zuen orduan. Eta zera erantsi:

—*Egunero kume baten errule da, ordea.*

Eta kutxa bat ireki zuen, bertan zazpi arrautza zeudela:

—*Hona hemen azken asteon errun berriko kumeak.*

Ur irakinetan murgildu zituzten arrautzok.

Zuritu eta g atz pitin batez onduta dastatu zituen faraoiak.

Beronen gelan bidaiatu zuen txori emeak, aldamenean etzanda.

Hatshepsut

Ederbete eta zerutiar irudikoa zen, dontzeila xarmant eta pipil.

Horrelaxe aritu zen bere buruaz, apalik, Tutmosisen alaba nagusia. Hatshepsut, errege-jargoia bereg anatu zuena, gerlariren alaba gerlaria, erregina baino errege deitzea erabaki zuena. Zeren eta erreginak, erregearen andreak, izan baziren izanak. Hatshepsut pareg abea zen, ordea, eguzkiaren alaba, goren agintaria, bene-benetakoa.

Eta faraoi titidun honek kaskoa, arren g ainjantzia eta bizarra erabili zituen lanabes, eta hogeituro urteko oparotasun lorialdia eman zion Egiptori.

Berak hazitako ilobatxoak gudagintzaren eta gobernu egokiaren trebetasunak bere eskutik ikasitako berberak akabatu zuen bere oroimena. Eta agindu zuen gizonezkoen boterea usurpatutako hori faraoien zerrendatik ezabatzeko, hilarri eta pinturetatik haren izena eta irudia kentzeko eta erauzteko bere aintzari berak jasotako estatua oro.

Baina zenbait estatua eta inskripzio zenbait onik atera ziren garbiketarik eta ez eraginkortasun horiei eskertuta badakigu jakin gizonezko mozorroturiko faroisa izan zena, hil nahi izan ez zuen hilkorra, honakoa iragarri zuena: *Betierekotasunerantz doa hegan ene belatza, erreinuko ikur banderetarik haratago...*

Hiru mila eta laurehun urte geroago aurkitu zuten beronen hilobia. Hutsik. Beste nonbait bide zen bera.

Beste piramidea

Zenbait piramideren eraikuntza mende bete baino luzarago iraun zezakeen. Milaka eta milaka gizon aritzen ziren, harriz harri, egunez egun, hobi itzelok jasotzen, non faraoi

bakoitzak, bere hileta ostilamenduk o altxorrek lagun, bizi behar baitzuen bere betierekotasuna.

Jendarte egiptoarra, piramide eraikitzaile, piramide zen.

Oinarrian, lurrik g abeko nekazaria. Nilok o uraldiak harrotutakoan, berak zituen jauretxeak eraikitzen, lurreziak jasotzen, ubideak urratzen. Eta urak arroilara itzultzean, besteren lurrak lantzen.

Duela lau mila urte inguru, honelaxe irudikatu zigun Dwa-Jeti eskribak:

Laboraria tiraka ari da uztarpean.

Makurturik lepogaina uztarpean.

Lepoan baba zornetsua duela.

Goizez, lekaleak ureztatu.

Arratsaldez, luzokerrak ureztatu.

Eguerdiz, palmondoak ureztatu.

Inoiz, zerraldo erori eta akabatu.

Ez zegoen hilobirik berarentzat. Biluzik zen bizi, eta heriotzan lurra zuen etxe. Basamortuk o bidetan zetzan, loak hartua zueneko ohatzea eta edateko buztin ontziak lagun.

Ahurrean zenbait g ari ale jarri ohi zizkioten, noizbait jatea otuz gero ere.

Guda jainkoa

Aurrez zein alboz Odin begibakarra ikarag arria zen, biki-
goen jainkorik jainkoena, guda lorien jainko otasuna, sarras-
kien aita, urkatuen eta gaizkileen jauna.

Huguin eta Munin, konfiantzako bi beleak zituen inteli-
gentzia zerbitzu buru. Haren lepotik abiatzen ziren goizero
eta mundua gain-hegaldatu. Ikusi eta entzunikoa kontatzeko
itzultzen ziren, ilunabarrean.

Heriotz aingeru, walkiriek ere hegan egiten zuten haren-
tzat. Guda zelaietan sigi-sagi aka, gorpuen artean gerlaririk

onenak hautatu eta Odin buru zuen goialdetak o mamu armadara biltzen zituzten.

Lurrean, Odinek guda sari txundig arriak eskaintzen zizkien berak babesturiko printzeei, eta babeski ikusezinez eta ezpata garaiezinez hornitzen. Baina heriobetera bidaltzen zituen bere ondoan, han zeruan, izatea erabaki ahala.

Mila itsasontziko flota eskutan izan eta zortzi hankako zalditan lauhazkatu arren, ez mugitu nahiago izaten zuen Odinek. Oso urrutitik zen borrokatzen gure garaiko gerren igarle hau. Bere lantza magikoa, telegidaturiko misilen amona, eskutik aldendu eta bakar bakarrik joan ohi zen etsaien bularraren bila.

Guda antzerki

Yamato Takeru japoniar printzea duela milurte pare bat jaio zen, enperadorearen laurogeig arren seme, eta anaia bizkia txikituaz abiatu zuen bere ibilbidea, sendi afarietan berantiar ibili ohi zela eta.

Gero, Kyûshû uharteko nekazari matxinoak deuseztatu zituen. Emakumez jantzita, emakumez orraztuta, emakumez makilatuta, limurtu zituen matxinadak o buruzagiak eta jai baten erdian erdibitu, meloiak bailiran, ezpatakadaka. Eta beste hainbat ingurutan ere inperioko araubideari oldartzen ausarturiko beste makina bat kotoitaduri ere egin zien eraso, eta txiki-txiki eginda baketu, orduan esan ohi zen eran, egun esan ohi den eran.

Izumo herrialdea xaxatzen ari zen bidelapuraren ospe doilorra akabatu zuen balentria izan zen, baina, ospetsuen. Yamato printzeak barkamena eta bakera eskaini zizkiola, matxinatuak gonbidatu zuen bere lurraldean ibilalditxoak partekatzen. Yamatok egurrezko ezpata zeraman zorrotz dotorean, bertan gerizpeko, bertan gezurrezko. Eguerdiz, ibaian bainu bat hartuaz freskatu ziren printzea eta bide-

lapurra. Bestea igerian zebilen bitartean, Yamatok ezpatak trukatu zituen. Bidelapurrraren zorroan egurrezk oa sartu eta bera metal ahoaren jabe.

Arrats beheran, jo zion erronka.

Guda arte

Duela hogeita bost mende, taktika eta estrategia militarri buruzko lehen bilduma idatzi zuen Sun Tzu jeneral txinatarrak. Bere aholku jakintsuok egun ere erabiltzen dira guda zelaietan, baita negozio eremuetan ere, non odola asko ere oparago isurtzen den.

Besteak beste, zera zioen jeneralak:

*Gauza bazara, ez-gauza baitzina jokatu.
Indartsua bazara, ahulezia erakutsi.
Hurbil zarenean, urruti zarenez antzaldatu.
Ez jo sekulan etsaia ahaltsua den horretan.
Ekin beti irabaz ezin dezakezun gudua.
Baldintza urriagotan izanez gero, alde.
Etsaia baturik egonez gero, zatitu.
Jo aurrera gutxien espero zaituenean.
eta ustekabeen zaion lekutik jo eraso.
Etsaia ezagutzeko, zeure burua ezagutu.*

Guda lazgarri

Idi urdinaren gainean, bazezilen ibili Lao Tse.

Kontradikzio bideetan barna, ura eta sua batu egiten diren leku ezkuturantz.

Kontradikzioan dira guzia eta ezereza, bizia eta herioa, hurbila eta urruna, iragana eta geroa.

Herri bat zenbat eta aberatsago orduan eta txiroagoa zenaren ustekoa zen Lao Tse filosofo baserritarra. Eta gerra ezagutzeko bakea ikasten denekoa, mina aintzan bizi baita:

*Ekimen orok dakar erantzunik.
Bortizkeria beti itzultzen da.
Gudarosteak kanpatu diren eremuan, sasi eta elorri baino ez.
Gerra goseari deika.
Konkistan atsegin duenak jende sufrikarioaz du atsegin.
Hiletaz ospatu beharko lukete garaipen oro gudan hiltzen
dutenek.*

Horia

Txinako ibairik beldurgarrienak herensugearen erokeria edo jendearen erokeria dela medio du Horia izen.

Txina Txina izan baino lehen, goialdeetan ziren hamar eguzkietako baten g ainean zohardia zeharkatzen saiatu zen K'au-fu herensugea.

Eguerdian, guztiz ezina zitzaion su horri eustea.

Eguzkiz sutan, egarriz ero, ikusi zuen lehen ibaira amildu zen herensugea. Goialdeetatik hondoraino zerraldo erori eta ur guzti-guztia edan zuen, azken tanta ere, eta ibaia ibilitak o ubidea lokatz horizko arro luzea besterik ez zen engoitik.

Bada kontatera hau g anorabakoa dela dioenik. Eta diote historian egiazaturik dagoela Horia ibaiak duela bi mila urte inguru duela izen hori, elur, lokatz eta zabor oldeetatik babesle zituen auzok o basoak erail zizkiotenez geroztik. Jadea bezain berde izanik o ibaiak bere izana g aldu eta izena irabazi zuen orduan. Eta denbora joan ahala, gauzak gero eta okerrago ziren, harik eta ibaia estolda ikarag arria bilakatu zen arte. 1980an laurehun izurde bizi ziren bertan. 2004an, bakarra. Ez zuen luze iraun.

Yi eta lehortea

Hamar eguzkiak erotuak ziren guztiz eta guztiak batera jira-biraka ari ziren ortzian.

Yi gezilari hutsezina deitu zuten jainkoek, arku jardueratan iaioena.

—*Lurra sutan da* –esan zioten–. *Jendeak hil, eta hil egiten dira animaliak eta landareak ere.*

Gau amaiera aldera, erne zen Yi arkularia, zain. Eta egunsentian, jaurti.

Bata bestearen ondotik, eguzkiak itzali ziren, betiko. Egungure egunak pizten dituen eguzkiak bakarrik biziraun zuela.

Haien seme-alaba sutsuen heriotzari neg ar egin zioten jainkoek. Eta Yi beraiek deitua izan arren, jainkoek bota zuten zerutik:

—*Lurrekoak horren maite badituzu, zoaz beraiekin.*

Eta erbestera joan zen Yi.

Eta hilkorra izan.

Yu eta uraldia

Lehortea eta gero, uraldia etorri.

Haitzak karraska, zuhaitzak uluka. Horia ibaiak, izenik gabe orduan, jendeak eta ereintzak zituen irentsi, eta haranak eta mendiak ito.

Yu, jainko herrena, munduari lagun zen etorri.

Nekez oso ibiliz, uraldian barna sartu zen Yu, eta bere palaz ubideak eta zuloak ireki eroturiko ura arintzeko.

Yuren laguntzaile izan ziren ibaiaren sekretu oro zekien arraina, isatsaz ura desbideratzen aurretik zihoan dragoia eta lokatza zamatzten atzetik zetorren dortoka.

Txinako liburua sortu

Lau begiren jabe zen Cang Jie.

Izarrak irakurtzen eta patuak ig artzen ateratzen zuen ogibidea.

Hitzak marrazten dituzten zeinuak sortu zituen berak, konstelazioen moldeak, mendien lepoak eta hegaztien luma-jeak luze aztertu ondoren.

Libururik zaharrenetarik oan, banbuzko taulatxo osatuta, Cang Jiek asmatu-ko ideogramak erresuma baten historia edesten digute, non gizonak zortzi mende baino luza-roago bizi eta emakumeak, eguzkia elikagai, argi koloreko baitziren.

Suaren Jaunak, harkaitz jale, errege-botereari oldartu eta jargoirantz jaurti zituen gudarosteak. Eta haren aztik eriek laino trinkoa jausi arazi zuten, jauregiko armada lelo memelo utzita. Soldaduak zabuka ziren itxik erian, itsu, noraezean, eta orduan Emakume Beltzak, hegazti lumez hegalarri, goialdeetatik jaitsi, iparrorratza sortu eta oparitu zion errege etsiari.

Eta garaitua izan zen lainoa, eta etsaia ere bai.

Sendi argazkia Txinan

Antzinaroan antzina, Shun, malba gorria, errege izan zen Txinan. Eta Ho Yi, artatxikia, haren nekazaritza ministro.

Bi-biok hainbat oztopo izan zuten haurtzaroan.

Jaio orduko Shun ez zen batere begiko suertatu aitatzeko eta anaia nagusiarentzat, eta su eman zioten etxeari bera barnean zela. Haurtxoa ezta erreskaldatu ere, ordea. Eta putzuan sartu zuten, eta gainetik lurra bota, guztiz estaltzeraino, Ezta nabaritu ere, baina, haurtxoak.

Haren ministro Ho Yik ere biziraun zien sendi ferek ei. Jaioberriak zoritxarra ekarriko ziolakoan guztiz sinetsirik, haren amatxok landa zabalean lagatzen, goseak hil zezan. Eta goseak hil ez zuenez, oihanera bota zuen, tigreek irentsiz zezaten. Eta tigreek ontua bat ere interesatu ez zitzaenez, elurretara egotzi zuen, hotzak akaba zezan. Eta zenbait egun geroago, aurkitu zuen umore onez eta pittin bat bero-suturik.

Lerdea izaniko zeta

Lei Zu zenak Huangdik o erreginak, sortu zuen zetagintza txinatarra.

Oroimenaren ipuin k ontalariak diotenez, Lei Zuk berak hazi omen zuen lehen harra. Marug atze zuri hostoak jaten eman eta laster beldarraren lerde hariak pipilean ehundu ziren, haren gorputza osorik bilduz. Orduan Lei Zu eri eztiz aritu zen kilometrotak o hari hori askatzen, emeki-emeki, gisa goxoenean iruten. Eta horrela tximeleta izatek oia zen kuskua zeta izan zen.

Gasa garden, muselin, tul eta tafeta bihurtuta, jaun ande-reak jantzi zituen zetak, belus amultsuaz eta perlaz brodatu-riko egundoko brokatuez jantzi ere.

Erreinetik at, luxu debekatua zen zeta. Elurturik o mendiak, suturiko basamortuak eta sirenaz zein pirataz josirik o itsasoak zeharkatzen zituzten haren garraibideek.

Txinako harra ihesi

Denbora luze geroago, zeta g arraiobideetan barna ez zen engoitik horrenbeste etsai beldurg arri, baina burua g alduko zuen Txinatik marugatze hazirik edota har irulearen arrau-tzarik ateratzen saiatuko zenak.

420 urtean, Yutian erresumako Xuanzang erregeak prin-tzesa txinatar batekin ezk ontzeko mandatua egin zuen. Behin baino ez zuen ikusia, halaxe zioen, harez geroztik, aitzitik, gau eta egun ikusten zuela.

Eman egin zioten printzesa, Lu Shi izeneko.

Enbaxadoreak bidaiatu zuen haren bila.

Opari trukea gauzatu zen, eta gorazarre eta zeremonia amaigabeak.

Biok bakarrik hitz egiterik izan zuten une batean, zain zeukan senarraren larriak kontatu zizkion enbaxadoreak printzesari. Jadez ordaintzen zuen betidanik Yutianek Txinako zeta, engoitik ordea, jadea urri zen erresuman geratzen.

Txintik ere ez zuen Lu Shik esan. Bere ilbete aurpegia, mugitu ere ez.

Eta abiatu zen. Bidaide zuen karabana, milaka g amelu, milaka txilin dilindari, basamortu itzela zeharkatu ondoren heldu zen Yumenguan lepoko mugara.

Zenbait egunez luzatu zen ikuskapena. Printzesa bera ere ez zen araketatik salbu izan.

Azkenik, luze ibilita, helmugara ailegatu zen eztei segizioa.

Hitzik esan gabe, keinurik bat ere gabe, bidaiatu zuen Lu Shik.

Santutegi batean geratzek o agindu zuen berak. Bertan bainatu eta lurrindu zuten. Musikaren doinupean jan eta isiltasunean egin zuen lo.

Bere gizona heltzean, sendagaien kutxan ezkutaturik ekarritako marugatze haziak eman zizkion Lu Shik. Ondoren, bere zerbitzuko hiru neskatxa aurk eztu zizkion, ez zerbitzari ez neskatxa. Zetagintzan adituak ziren. Eta gero, kanela hostoz eginiko buruko estalkitzarra askaturik, gizonarentzat zabaldu zuen bere adats beltza. Hortxe bertan zeutzan zetar arrautzak.

Txinaren ikustaldez, jaiotako aberriaren aurkak o traidore zen izan Lu Shi, etoia.

Yutianen ikusmoldez, erregina izaniko aberriaren heroi.

Bere heriotza eraikitzen bizi izaniko enperadorea

Txina du izen Txinak Txin zenarengatik, Txin Shi Huang, Txin bertako lehen enperadorea.

Artean erreinu etsaitan zatikaturik zena nazio egin zuen berak, su eta gar. Guztien hizkuntza eta pisu zein neurri

sistema bateratua ezarri zituen eta diru bakarra sortu, erdiko zulotxodun txanpona, brontzez egina. Eta bere menpeko lurraldea babestearren Harresi Handia jaso zuen, mapa alde alde zeharkatzen duen harrizko gailur kate amaigabea, munduko babesgune militarrik ikustatuena egun ere badena, bi mila eta berrehun urte geroago.

Baina txikik erioak ez zioten behin ere loa eragotzi. Bizitzako egintza berebizikoa heriotza izan zuen eta: bere hilotza, gero bere jauregia.

Errege-aulkian eseri zen egunean bertan ekin zion erakitzeari, hamahiru urteko bere adinean, eta urterik urte ehorts eraikina handituz joan zen, hiri bat baino are hantutsago izateraino. Hura babestuko zuen armada ere hazi zen ederki, zalditeria eta infanteria zazpi mila soldadutik gora, beren odol koleto jantziak eta babeski beltzak eta guzti. Buztinezko gerlariok, egun mundua haiei so zur eta lur dela, eskultorerik onenek zuten taxutu. Zahartzarotik salbu jaiotza eta traiziorako ezgauza zirela.

Erabat indar husturik hil eta basamortura botako zituzten gatibuen lana zen hileta eraikina. Apaingarri ñimiñoen ere zuzentzen zituen enperadoreak berak eraikitze lanok, eta gero eta gehiago exijitzen. Estu eta larri zen, oso. Behin baino gehiagotan saiatuak ziren etsaiak bera hiltzen eta izu bete-betea zion ehorts hobirik gabe hiltzeari. Mozorroturik zuen bidaiatzen, eta gauero leku ezberdinetan lo egiten.

Eta heldu zen behingoan eraikuntza itzela amaitu zen eguna. Armada oso-osorik zen. Baita hilobi erraldoia ere, eta maisu lana zen. Haren hobe zintasan betearen aurkakoa iraina liteke edozein aldaketa.

Enperadorea mende erdikoa bizi roa betetzear zela, orduan etorri zitzaion herioa bila, eta berak eramaten utzi.

Antzoki handia prest, aurre oihaltzarra jaso eta antzerkia abian zen. Ezin zion huts egin hitzorduari. Ahots bakarra-entzako opera baitzen hura.

Oin-hiltzaileak

Duela mende pare bat, hankaz gorak o Txina asmatu zuen Li Yu-chen idazleak. *Loreak ispiluan* bere eleberrian bazen emakumeen herrialderik, non beraiek baitziren nagusi.

Fikzioan, emakumeak gizon; eta gizonak, emakume. Hauei atsegina eman beharra zigor, gizonak zerbitzak eria ezin ugariagoak zituzten derrigor. Besteak beste, oinak txikiagotuak izatea onartzearen otzana.

Inortxok ez zuen zinez hartu halak o aukera ezinezkorik. Eta gizonak izan ziren emakumeen oinak txikiagotzen jarraitu zutenak ahuntz apatx antzekoak bilakatzeraino.

Mila urte eta gehiagoz, hogeigarren mendea ederki aurreratu bitartean, edertasun arauak emakume oina haztea debekatzen zuten. Bederatzi arren mendean, Txinan idatzi zen Errauskineren lehen adiera, emakume oin txikitxoaren aldeko gizonen apeta literatura moldez jantzi zelarik bertan; eta garai berean, urte gutxi batzuk gorabehera, alaben oinak haurtzarotik bertatik lotzeko ohitura nagusitu zen.

Eta ez bakarrik estetika eredu hutsez. Gainera, loturiko oinek lotu egiten zuten: g arbitasunaren ezkutu zirela. Emakumeak aske mugi zitezten ezinezko, sendiaren ohorea kolo kan jar zezakeen ihesaldi oro ekidinez.

Ele kontrabandistak

Haurtzaroan txikiagotu zizkioten Yang Huan yiri oinak. Zabu-zabuka ibili zuen bizitza. 2004 urteko udazkenean hil zen, mendea betetzear zuela.

Nushu, txinatar emakumeen hizkera sekretuaren azken hitzuna zen bera.

Emakume kode hau antzinarotik zetorren. Gizonen hizkuntzatik egotzirik emakumeek, ezin baitzuten hura idatzi, euren hizkuntza propioa, sasikoa zuten asmatu, gizonentzat

debeku. Idaztek o ezgauza izatera jaiota, idazkera propioa sortu zuten, apaingarri hutsak bailiran jantzitak o zeinuz, ugazaben begietara irakurtezin.

Emakumeek arropa eta abanik otan marrazten zituzten hitzok. Hauek bordatzen zituzten esku emeak ez ziren ask e. Ele zeinuak bai.

Izu arra

Gaurik zaharrenean elkarrekin zeutzan, lehen aldik oz, emakumea eta gizona. Honek mehatxuzko soinxoren bat aditu omen zion haren soinean, izter artek o hagin karraskariren bat-edo nonbait, eta izualdiak eten zion besarkada.

Arrik arrenak dardaran dira gaur egunean ere, munduan nonahi, gogoan zer duten jakitek e, irenste zori larri hura gogoan dutela. Eta euren buruari g aldetzen, zer g aldetzen duten jakiteke: emakumea irtenbiderik g abeko sarbidea iza-teari eusten diola izango ote da, bada? Berarengan geratuko dela berarengan sartzen dena?

Arma arriskutsua

Hogeita hamar herrialde baino gehiagotan, klitoria moztea agintzen du tradizioak.

Emaztearen edota emazteen g aineko senarraren jabetza eskubidea berresten du ebakerak.

Emakumeen plazeraren aurkak o krimen honi *garbikun-dea* esaten diote ebakitzailleek, eta zera esan klitoriaz

azkon pozoitsua dela,

lupu buztana,

termita inurritegia,

gizona akabatu edo gaixotzen duela,

emakumeak berotu,

*hauei esnea pozoitu,
eta ase ezinak bilakatzen dituela,
eta ero-eroak.*

Ebaketa zuritzeko, Mahoma ig arlea ohi dute aipu, sekulan honetaz mintzatu ez zena, eta Korana, honek ere inon ez aipatu arren.

Bederatzi ilargiak

Gutapa erdi lotan zen bizi, kulunkan, artean izenik ere ez zuen bere andreak buruan hazkatu, eltxoak uxatu eta ahora janaria ematen ziola. Tarteka jalgi eta jipoi ederrik ematen omen zion, besteari jokabidea artatu eta berak sasoian irauteko edo.

Emakumeak alde egin zuenean, Gutapak Amazonas ibaiertzeko sakanetan barna jo zuen haren bila, iheslariaren balizko gordeleku oro zaharoaz astintzen zuela. Eta liztor habia zegoen ezkutagunea astamakilez zartatu zuen, arima eta bihotz betez.

Liztorrek, zirimola sutsu, milaka ezten ziztatu zioten belaunean.

Hanpatu zen belauna. Eta emeki, ilargiz ilargi, puxika ikaragarria bilakatu. Eta puxikaren barnean moldez eta mugimenduz jantzi gizontxo eta emakumetxo xehe-xehe ugariak, otartxo eta lepokoen jabe, gezi eta azkonen egile.

Bederatzigarren ilargialdian, erditu zen Gutapa. Lehen tikunak sortu ziren haren belaunetik, ongi etorria jaso zutela papagai hegal urdin, papagai guaiaba-zale, papagai mahats-zale eta beste esatariren zalapartaz.

Eguzkia gailen, ilargia galtzen

Emakumeak haurduntzen zituena haizea ez zelako albistea hedatu zenean galdu zuen ilargiak eguzkiaren aurkako lehen guda.

Geroago, beste berri ilunik ere ekarri zuen historiak:

lan banaketak ia zeregin guztiak emeei egotzi zizkien, arrok elkarren akabatzeari bete-betean lotu ahal izateko; jabego eskubideak eta oinordetza eskubideak bideratu zuten emakumeak ezereen jabe ez izatea; sendiaren erakuntzak sartu zituen aitaren, senarraren eta semearen kaiolan eta estatua finkatu zen, sendiaren antzeko, baina are handiago.

Bere alaben amiltzea partekatu zuen ilargiak.

Urruti ziren oso Egiptok o ilargiak eguzkia ilusentian irentsi eta egusentian sortzen zueneko garaiak, baita Irlandako ilargiak, betiereko gauaz mehatxaturik, eguzkia menpeko izan eta Grezia zein Kretak o erregeek, piltzarrak titi eta erreginaz mozorrotuta, zeremonia sakratuetan guda-ikur ilargia jaso ohi zutenekoak ere.

Yucatanen, ezkontide bizi izanak ziren ilargia eta eguzkia. Elkarri mokoka aritzean, eklipsea. Bera, ilargia, itsaso eta iturrien amandrea zen eta lurraren jainkosa. Denbora aurreratu ahala, bere botereak galdu zituen, orde. Erditze eta eritasunez baino ez da arduratzen gaur egun.

Peruko itsasertzean, umiliazioak zuen datarik. Espainiarraren inbasioa baino lehentxeago, 1463 urtean, inken eguzkiaren armadarengana makurtu zen Chimu erreinuko ilargia, aginterik gorenekoa.

Mexikemeak

Tlazolteotl, Mexikoko ilargi, huasteken gau-jainkosa, azteken jauretze ar horretan tokixorik eskuratzeko gai izan zen.

Erditu berriak eta emaginak babesten eta haziak landaretarantz bideratzen zituen ama txit ama zen bera. Maitasunaren jainkosa, baita zaborrarena ere, kaka jatera zigorturik, ugalkortasuna eta lizunkeria zituen hezur-haragitzen.

Eba bezala, Pandora bezala, Tlazolteotl gizonen galbidearen erruduna zen; eta haren egunean jaiotako emakumeek gozamenari itsuan loturik bizitzea zuten zigorra.

Eta lurra hozkirrietan zenean, dar-dar apalez edota lurrikara suntsitzailez berdin, inortxo ere ez zen zalantzan:

—*Bera da.*

Egiptemeak

Greziatik etorrira, Egiptoko ibaiak eta zeruak beste inongo ibairen eta beste inongo zeruren antzik ere ez zutela egiaztatu zuen Herodotok, eta gauza bera gertatzen zen ohiturekin. Jende bitxia, egiptoarrak: oinez egiten zuten irina ore eta eskuz buztina, eta hildakokatuak momia egin eta hobi sakratuetan gorde ohi zituzten.

Gizonen artean emakumeek zuten tokia zen, baina, deigarriena. Nobleziak ala jende xumek berdin, askatasun osoz ezkontzen zirela, euren izenei edo ondasunei ukotze egin gabe, gainera. Hezkuntza, jabetza, lana eta premutasuna emakumeen eskubide ere baziren, ez bakarrik gizonenak, eta hauek etxean iruten zuten bitartean, haiek ziren azokan erosketak egiten zituztenak. Herodotoren arabera, mutur bero xamarra berau, zutik egiten omen zuten emakumeek txiza, eta gizonek belauniko.

Hebraitemeak

Itun Zaharrak dioenez, Jainkoaren zigorra pairatzen ari zen Ebaren alabak. Harrikaturik hil zitzaizkaten adulteriogileak, aztiak eta ezk ontzara birjina aileg atzen ez ziren emakumeak;

sutzarrean kiskaltzera bidali, apaiz alaba izanik emagaltzen zirenak

eta eskua motz ziezaiotela agintzen zuen lege jaink otia-
rrak gizona kaskabiloetatik helduk o zion emakume orori, bere
buruaren edota bere senarraren bidezko defentsan jardun arren.

Berrogei egunez zen lohik eriak jota semeaz erditurik o
emakumea. Laurogei egun irauten zion likitsaldiak ordea,
alabaz izatekotan.

Aratz ez zen hilek oa zuen emakumea, zazpi egunez eta
berauen gauez, eta bere g arbi-eza eransten zion bera ukitu
edota lotan zetzan ohatzea edo esertzen zen aulkia ukituk o
zuen nornahiri.

Indiemeak

Jaio orduko izan zen jaink osa Mitra, eguzkiaren eta uraren
eta bizi iturri guztien ama. Indiara heltzean ordea, Babilo-
niatik edo Persiatik, jainkosak jainko bihurtu behar.

Urte mordo xka joana da Mitra etorri zenez geroztik,
eta oraindik ere emakumeei ongi etorri handirik ez Indian.
Gizonak baino emakume gutxiago dira han. Zenbait eskual-
detan, gizonak hamar eta beraiek zortzi. Ug ariak dira bidaia
osatzerik ez dutenak, amaren sabelean bertan hilik, eta
askoz ere gehiago jaio orduko itota hiltzen dituztenak.

Hobe gaur adi eta ez bihar eri, eta badira izan oso arris-
kutsuak direnak, tradizio hinduk o liburu santuetak o batek
ohartarazten duen eran:

—*Emakume lizuna pozoia da, sugea da eta herioa da,
dena bat.*

Dohatsurik ere bada, ohitura onak g altzen ari diren
arren. Senarra gorpu g arretan den sutera beren burua bota-
tzeko agintzen die tradizioak alargunei, baina gutxi geldi-
tzen dira halakorik burutzeko prest, baten bat gelditzekotan.

Mendetan edo milurtekotan baziren izan, eta ugariak. Ez
da ezagun ordea, ezta egundo ezagutu izan ere, emazte hil-
dakoaren sutean must egindako senar alerik.

Txinatemeak

Duela mila urte inguru, Txinako jainkosek utzi egin zioten jainkosa izateari.

Arren boterea, lurrian engoitik nagusi, zeruetan ere bere araubidea ari zen ezartzen. Shi Hi jaink osa bi jainkotan zuten erdibitu, eta Nu Gua jainkosa emakume mailara beheratu.

Eguzkien eta ilargien ama izana zen Shi Hi. Eguna eta gaua zeharkatuaz eginiko bidaia guztiz nekagarrien ondoren bera zen seme-alabei gogoa arindu eta janaria ematen ziena. Shi eta Hi sortuz erdibitu zutenean, bi-biak gizonezk o jainko, bera izateari utzi egin zion berak, eta aienatu zen.

Nu Gua ez zen desagertu, emakume huts-hutsik bihurtu bai, ordea.

Lehengo garaietan, bizi den ororen sortzailea izana zen bera:

ortzietako dortokatzarraren hankak moztu zituena,
zeruak eta lurrak non eusteko zutaberik izan zezaten,
su eta ur hondamendietatik mundua onik atera zuena,
maitasuna asmatu zuena, harroturiko belardia babes,
anaiaren ondoan etzanik

eta jende noblea eta xehea sortu zuena, buztin horiaz
moldatuz goikoak, lokatz uherraz behekoak.

Erromatemeak

Zizeronek jada azaldua zuen zaindari gizonezkoen menpeko behar zutela izan emakumeek, *hauen adimen murrizta dela medio*.

Erromako emakumeak gizakumeren eskutik gizakumeren eskura ig arotzen ziren. Alaba ezkontzen zuen aita jabetzan utz ziezaiokeen senarrari, edota mailegu gisa eman. Dena dela, ezkon saria, ondarea, oinordetza ziren g arrantzi-tsuak: gozamina emakume esklaboen lepora zihoan-eta.

Emakumeek, berdin noble, xume edo esklabo, guzti-guztiek hagin gutxiago eta adimen urriagoa zutelak oan zeuden sendagile erromatarrek, Aristoteles bezala, eta hilek oaren egunetan ispiluak geruza gorrixkaz lurrintzen zituztelakoan.

Inperioko zientzia aditurik gorenak, Plinio Zaharrak, zera frogatu omen zuen, hilek odun emakumeak ardo g aztea ozpindu egiten zuela, uztak antzutu, haziak eta fruituak idortu, landare kimuak eta erlekumeak akitu, brontzea herdoildu eta txakurrak erotu.

Greziemeak

Buruko minetik jaink osarik sor daitek e. Atenea sortu zen Zeus bere aitaren buru minberatutik, berau ireki egin baitzitzaion alabaz erditzearen. Amarik gabe munduratu, beraz, Atenea.

Handik denboragarrenera, boz erabakig arria eman zuen behin Ateneak jainko auzitegian, Olinpoak epai k orapilatsu bat ebatzi behar izan zuen batean.

Aitatxo mendekatzeko, Elektrak eta Orestes bere anaiak aizkorakadaz hautsi izan zioten lepoa amatxori.

Furiak ziren akusatzaileak. Hiltzaileak heriotza artek o harriketara zigortzeko eskatuz ozen, sakratua baita erreginaren bizia, eta ama hiltzen duenak barkamenik ez duelako.

Apolok hartu zuen defentsaren ardura. Ama ez duinaren seme-alaba zirela akusatuok eta amatasuna g arrantzi izpirik gabeko kontua zela zioen. Ama, Apolok esana, gizonak bere hazia isurtzeko ildo geldoa baino ez baita.

Epaimahaiko hamahiru jainkoetarik seik zigorraren alde zuten bozkatu eta seik errugabetzat jo.

Ateneak zuen berdink eta hausten. Izan ez zuen amaren aurka bozkatu zuen berak eta botere arrari betierek o bizitza eman Atenasen.

Amazonak

Amazonak, emakume beldurg arri, borrokan aritu izanak ziren Herkulesen, artean Herakles zeritzanaren, aurka, eta Akilesen aurka Troiako gerran. Gorroto zieten gizonezkoei eta beren eskuin aldeko bularra ebakitzen zuten euren geziek are zorrotzago jo zezaten ituan.

Amerikaren soina alde alde zeharkatzen duen ibai handiak Amazonas du izen, Francisco de Orellana konkistatzaile espainiarrarena izaki egintza eta grazia.

Bera izan zen ibaia nabigatzen lehen europarra, lehorreko meharretatik itsasoko zabaldiraino. Begi bat gutxiagoz itzuli zen Espainiara eta kontatzen zuen berg antin ontziak geziz josi zizkiotela emakume gerlariak, berauek biluzik aritzen zirela borrokan, basapiztien antzera orro eginez, eta maitasun gose zirelarik, gizonak bahitu, gaupean musukatu eta egunsentian itotzen zituztela.

Eta bere kontakizunari osperik emate aldera, emakume haiek Diana jainkoaren gurtzen zuten amazona haiek zirela esan zuen Orellanak, eta beraien izenez bataiatu erresuma zuten ibaia.

Mendeak iragan dira harrezkero. Amazonez berririk ez, sekulan ere ez. Baina izen bera du ibaiak grazia, eta pestizidak, ongarri kimikoak, meatzetak eta merkurioak eta itsasontzietako petrolioak egunero-egunero pozoitzen duten arren, haren urek dira munduko oparoenak izaten arrainez, hegatziz eta ipuinez.

Gibela arima enea zenekoa

Lehenengo garaian, kardiologoak eta bolero letragileak jainko bako franko aspaldiago, bihotzeko aldizkariak aise asko dei zitezkeen gibeletan.

Gibela zen guztiaren muina.

Tradizio txinatarren arabera, gibela zen arimak lo eta amets egiten zuen gunea.

Egipton, Amset, Horus jaink oaren semea zen gibelaren zaindaria, eta Erroman J upiter, jainkoen aita bera zen zaintza horren arduradun.

Etruskoek patua irakurtzen zuten sakrifi katuriko animalien gibelean.

Tradizio grekoaren arabera, Promoteok guretzat jendekiontzat lapurtu zuen jainkoen sua. Eta Zeus, Olinpoko agintaririk gorena izan zen zigortu zuena, haitz bati katez lotuta, bertan egunero-egunero sai batek gibela mokoka jaten ziola.

Bihotza ez: gibela. Prometeoren gibela egun oroz berrosatzen zen ordea, eta horixe bera haren hilezk ortasunaren froga.

Matxismoa sortu

Oinazekari amaigabe hau txikia zelak oan akaso, lehen emakumea sortuz ere zigortu zuen Zeusek Prometeoren traizioa. Eta oparia zigun bidali.

Olinpoko olerkarien arabera, Pandora zuen izen, ederra eta kuxkuxeroa zen oso, eta kaskarin xamarra.

Kutxatzarra besotan zuela heldu zen Pandora lurrera. Kutxan, zoritxarrak ziren atxilo. Debekatua zion Zeusek hura irekitzea; baina gure artera lurreratutako orduko, ezin tentazioari eutsi eta altxatu egin zuen estalkia.

Hegan ekin zioten izurriteek eta euren eztenek guri ziztatu. Eta horrela heldu zen herioa mundura, eta harekin batera heldu zahartzarora, eritasuna, guda, lana...

Bibliako apaizen arabera, beste emakume batek ere, Eba izenekoak, beste jainko batek beste laino batean sortuak, erabateko hondamendiak ekarri zizkigun.

Herakles

Zeus zigortzaile petoa zen, oso. Esklabotzat saldu zuen Herakles semea, geroago, Erroman, Herkules deituk o zena, portaera txarra zela zio.

Lidiako erreginak, Onfalek, erosi zuen Herakles , eta honek, haren zerbitzari zelarik, kalitu zuen suge erraldoia, gehiegi nekatu gabe, jakina, txiki-txikitatik iaioa izaki sugeak txikitzen, eta g aueko bizkiak ere harrapatu zituen, euliz mozorroturik jendeari loa lapurtzen zioten horiexek.

Balentriok, ordea, axolarik batere ez Onfale erreginari. Hark maitalea nahi, ez zaindaria.

Gelan sarturik egon ohi ziren ia beti. Agertzean, panpox ageri ohi zen Herkules, harribitxizko lepokoz, urrezko besokoz eta gonazpiko pololo k oloretsuz, bere giharrek josturak leher - tzen zituztela-eta gutxi irauten zutela, eta berak Nemean beso hutsez itotako lehoiaren larruz jantzita ageri ohi erregina.

Erreinuko txutxu-mutxuen arabera, gaizto ibiliz gero , ipurdikoak jotzen omen zizkion sandalia zolaz. Astialdie-tan Herakles bere ug azandreaaren zangotara urrumatu eta harilka eta iruten atsegin bete zela ere bazioten, bitartean errege-etxeko emakumeek haizea eman, orraztu, lurrintzen zutela, ahora jaten eman eta ardoa hurrupatxoka zerbitzaz- tzeaz gain.

Hiru urte iraun zuten oporrek, Zeus, aitatxo, agindu zuen arte Herakles behingoan lanera itzul zedin eta munduko arrik gaingoitiarren gisako bere hamabi balentriak behin betiko burutu zitzen.

Nazioarteko merkataritza erakundea sortu

Merkataritza jainkoa hautatu beharra zegoen. Olinpok o jar-goitik etxekoak aztertzen ari zen Zeus . Luzaroan hausnartu beharrik ez. Hermes behar zuen izan.

Urrezko hegaltodun sandaliak oparitu eta honak oak agindu zizkion Zeusek,
merkataritza trukak eta suspertu, itunak sinatu eta sale-rosketa askatasuna jagon zezan.

Hermes, geroago, Erroman, Merkurio deitua, gezurtirik iaioena zelako izan zen hautatua.

Posta sortu

Duela bi mila eta bostehun urte, zaldiek eta oihuek zituzten albisteak eta mezuak urrutietara garraiatzen.

Zalditeria pertsiarreko zaldunik onenen txandakatzea bide, gau eta egun zebilen posta-bidearen antolatzailea izan zen Ziro Handia, Akemenidarren etxeko seme, Antzan erresumako printze, Pertsiaiko errege.

Espres zerbitzua, garestiago, oihuka zebilen. Ahotsez ahots, mintzoak mendiak zeharkatzen.

Eko

Inoizko aro hartan, Eko ninfak jakin izan zuen esaten. Eta esan hain airoski esaten zuen ezen haren eleek ezerabiliak ziruditen, inoren ahok egundo errangabeak.

Baina Hera jainkosak, Zeusen legezko emazteak, madarikatu egin zuen jelsia bere kolpe sarri horietako batean. Eta Ekok zigorrik gaiztoena pairatu: ahotsa erauzi zioten.

Harrezkero, esateko ezgai, oihartzun hutsa da Eko, errepika. Dohain jaso bilakatu du ohiturak madarikazioa.

Tales

Duela bi mila eta seiehun urte, Mileto hirian, Tales izenekoa jakintsu adigalkorra gauzez ibili ohi zen, eta izarrei zelatari, putzuren batean erori ere sarri.

Tales, gizon jakingura, deus hiltzen ez dela jakitek o gai izan zen, oro dela bilakaeran eta munduan ez dela bizirik ez den ezer, eta bizi ororen sorreran zein helburuan ura dela. Ez jainkoak: ura. Itsasoa mugi eta lurra aztoratzen duelak o gertatzen dira lurrikarak, eta ez P oseidonen kasketak direla medio. Ez da jaink o graziagatik begiak ikusten duela, mundua islatzen duelako baizik, ertzetako zuhaixkak ibaiak islatzen dituen eran. Eta ilargiak eguzkia estaltzen duelak o dira eklipseak gertatzen, eta ez eguzkia Olinporen suminei ihesi ezkutatzeagatik.

Egipton gogoetan ikasia, akatsik g abe iragarri zituen Talesek eklipseak, akats barik neurtu itsas zabaletik zetozen ontzien distantzia, eta K eops piramidearen g araiara, itzala bide, zehatz-mehatz fi nkatzen ere asmatu zuen. Teoremarik entzutetsuena egozten zaio, eta beste lau gehiago, eta argindarra ezagutzera heldu zela ere badiote.

Baina agian besterik izan zuen balentriarik gorena: bizi izan zen bezala bizitzea, erlijioaren babesetik at biluzik, aringarririk gabe.

Musika sortu

Orfeo liraren hariei fereka aritzean, haritzak dantzan ziren iratzarri, aire horiei esker airoso, Traziako basoetan.

Orfeo argonautekin itsasoratzean, haitzek aditu zuten musika, mintzaira orok elkar topaturik o mintzoa, eta hondo jotzeaz salbu izan zen ontzia.

Eguzkia sortzean, oles egiten zion Orfeoren lirak, Pan-gaeum mendi tontorretik, eta biak mintzatu ohi ziren, parez pare, argiz argi, musikak ere airea pizten zuen eta.

Zeusek tximista jaurti zuen, honako harrokerion egilea erdibituaz.

Jainkoen monopolioa

Lurreko larre-jende xumeen k onpetentzia guztiz jasang aitzazae jainkoei.

Burumakur eta esanek o gatzazkie zordun. Haiek eginak gara, beraiek diotenez; eta goik o zeruetako zentsurak guztiz debekatua du haiek geuk eginak direlako zurrumurrua hedatzea.

Hodeiertzetik harago ikus genezak eela ohartzean, jainko maiek hautsa bota ziguten begietara; eta jainko grekoek itsutu egin zuten Fineo, Salmidesoseko erregea, denboratik harago ikus zezakeela jakitean.

Judutarren, kristauen eta musulmanen jaink oaren goiaingerurik kutunena zen Luzifer . Bere jargoia izarretatik gorago jasotzen ahalegindu zenean, jaink o horrek erraustu zuen Luzifer, bere edertasunaren suan bertan erreta.

Eta jaink o berori izan zen Adam eta Eba, lehenak, zilborrik gabeak, aintza jaink otiarra ezagutu nahi izateag atik paradisuatik lekutu zituena; eta berbera, halaber, Babel dorrearen eraikitzaileei zigorra ezarri ziena, zeruraino heltzeko lotsagabekeria gauzatzen ari ziren-eta.

Eskerrik asko zigorragatik

Hiri madarikatuan, Bibliak dioenez *puta eta puten ama* izanikoan, Babilonian ari ziren altxatzen jende harrok eriazko bekatu hutsa zen dorre hura.

Eta suminaren tximista ez zen luzapenetan ibili: hizkuntza ezberdinez mintza araziz zigortu zituen Jaungoikoak eraikitzaileak, inork inorekin elkar ulertzerik sekula izan ez zezan, eta dorrea erdizka geratu zen, betiko.

Antzinako hebraitarrek diotenez, jainko zigorra izan zen jende ele aniztasuna.

Gu zigortu nahian, ordea, Jaungoikoak mintzo bakararren asperkeriaz onik ateratzeko mesedea egin zigun, agian.

Hizkuntzak sortu

Antzinako mexikarren arabera, istorioa bestelakoa da oso.

Kontatu zuten Chicomoztoc mendia, itsasoa bitan banaturiko lekuan eregia, zazpi leizeren jabe zela erraieran.

Leize bakoitzeko jainko bana errege.

Zazpi leizeotako lurrez eta zazpi jainko on odolez, ore izan ziren Mexikon sortutako lehen herriak.

Mendiaren ahoetatik erretzen hasi ziren herriok, poliki-poliki.

Bera sortu zuen jainko oaren eleaz mintzo da herri bakoitzak, gaur egun ere.

Horregatik sakratuak dira mintzairak, eta anitzak mintzoaren doinuak.

Eurite oro

Hebraitarren jainkoa atsekabeturik zegoen oso bere seme-alaben jokabide okerra zela medio, eta uholdea izan zen jendeki oro urpean ehortzi zuena eta, bide batez, landa abere eta zeruko hegazti guztiak ere bai.

Noek, gizon zuzen bakarra bera izaki, berak bakarrik izan zuen hiru solairuko zurezko arka egiteko aukera, bere sendia eta munduan izanik o espezia bakoitzeko bikote ar-eme bana salbatzarren.

Uhalditzarrak itota hil ziren beste guztiak.

Arkatik egotzitakoek ere heriotza merezi izan zutela: ezohiko bikoteak, astemeri itsatsitako zaldia edota otsoaz maitemunduriko txakur emea tartean, eta emeen menpekotako arak, naturaren hierarkiaz ezjakinak oso.

Arrazakeria erlijioak sortu

Arka Ararat mendira heldu izana ospatzen mozkortu egin zen Noe.

Ez osorik zen esnatu. Bibliaren kontakizunetako baten arabera lotan zen bitartean Kam bere semeak zikiratuta. Eta aldaera horrek dio Jaungoikoak Kam eta bere seme-alabak eta berauen seme-alabak zituela madarikatu, mende eta mende guztietan jopu esklabotza zigor.

Baina Bibliaren aldaeretak o batek ere ez zuen esan Kam beltza zenik. Biblia jaio zenean Afrikak ez zuen esklaborik saltzen, eta denbora luze geroago belztu zuen Kamek larru-azala. Hamaika edota hamabigarren mendean-edo azaltzen hasiko zen, apika, bere belztasun hori, arabiarrek basamortuko hegoaldetik esklabo tratularitza abiarazi zutenean, baina guztiz beltza izatera, ziur aski, hamasei edota hamazazpigarrenaren bueltan heldu zen Kam, esklabotza negozio europarrik oparoena bilakatu zenean.

Harrezkero ospe jaink otiarra eta betierek o bizitza eman zitzaizkion beltz tratularitzari. Arrazoia erlijioaren menpek o, erlijioa zapalkuntzaren menpek o: esklaboak beltzak zirenez gero, Kam ere beltza, derrigorrez. Eta bere seme-alabak, hauek ere beltz, esklabo izateko jaioak, Jaungoikoa ez baita tronpatzen.

Eta Kam eta bere seme-alabak eta berauen seme-alabak ile kizkur izango ziren, begigorri eta ezpain puztu, biluzik ibiliko ziren, eskandaluzko zakilak agerian eta titi-ipurdi borobilak, lapurrerian biziko, jabeak gorrotatuko, sekula santan egiarik esan gabe eta loaldia lohikeriatan aritzeko erabiliz.

Arrazakeria zientziak sortu

Arraza kaukasiarra du izen, oraindik, jende mailak etaren gailurraren jabe den gutxiengo zuriak.

Horrelaxe bataiatu zuen, 1775ean, Johann Friedrich Blumenbach zenak.

Kaukasoan jendeteriaren sehaska zela uste zuen zoologo honek, eta handik zetozela adimena zein edertasuna. Erabiltzen da izena, gaur egun ere, ebidentzia oren aurka.

Besteak umiliatzek o europarren eskubidearen oinarri ziren berrogeita bost kaskezur biltzen izana zen Blumenbach. Jendeteriak bost solairuko piramidea osatzen zuela. Goialdean, zuriak.

Jatorrizko garbitasuna porrot egina zen, mailetan behera, larru zikineko arrazen eraginez: bertok o australiarrak, indio amerikarrak, asiar horiak. Eta guztien pean, azalean eta mamian itxurabako, Afrikako beltzak.

Zientziak sotoan kokatzen zituen beti beltzak.

1863an, Londresko Antropologia Elkarteak beltzak zuriak baino adimen urriagok oak zirelak o ondoriora heldu zen, eta europarrak zirela haiek *jendebidetu* eta *zibilizatze*ko ahaldun bakarrak. Zeregin noble honetara bideratu zituen Europak bere indarririk onenak, baina zori onik ez zuen izan. Ia mende eta erdi geroago, 2007 urtean, James Watson estatubatuarra, Medikuntza Nobel sariduna berau, zera esan zuen-eta: egun ere beltzak zuriak baino adimen urriagok oak direlako zientifikoki frogaturiko kontua dela.

Maitatzerik ederrena

Kantatu zion Salomon erregeak bere emakumeetarik emakumeenari. Haren gorputzari zion kantatu eta haren gorputzeko ateari eta partekaturiko oheko berdetasunari.

Kantarik ederrenak ez du J erusalemgo Bibliak o beste liburu guztien antz izpirik ere. Zergatik dago hor?

Rabinoen arabera, Jaungoikoaren Israelenganako maitasunaren alegoria da. Apaizen arabera, Kristoren Elizarekiko ezkontzari omenaldi pozez betea. Bertso bakar batek ere ez du Jaungoikoa aipatzen, ordea, are gutxiago Kristo edota Eliza, bi-biak *Kantua* kantatu izana baino askoz ere geroago jaiok.

Jende maite-sugarren eta gure k olore aniztasunaren ospatze betearen antzik du, baina, errege judu eta emakume beltz baten arteko elkarganatze honek.

Ardoa baino are goxoagoak dira zure ahoaren muxuak,
kantatzen zuen emakumeak.

Eta gure egunetara heldutak o aldaeraren baitan, honako hau ere zuen kantatzen:

Beltza naiz, baina ederra,

eta barkatzeko zuen eskatzen, bere k olorea bere lanari atxikiatz, mahastietan eguzkia gal-gal.

Haatik, bestelako adieratan, *baina* hori erantsia da. Kantatzen zuena, zera:

Beltza naiz, eta ederra.

Alexandro

Demostenes trufan ari zen:

—*Aldaretara jaso dezagun nahi du gaztetxoak. Eta tira. Egin diezaioGUN atsegin.*

Gaztetxoa Alexandro Magno zen. Herakles eta Akilese senide izatea aldarrikatzen zuena. *Jainko garaiezina* deitzeko agintzen zuena. Zortzi alditan zauritua izana, eta munduak konkistatzeari zerraiona, halere.

Sendia oso-osorik akabatu ondoren bere burua Mazedoniako errege koroatuaz abiatua zen, eta beste gainerako guttiko errege ere k oroatua izan nahian, gerra betean bizi izan zituen bere bizitzako urte urriak.

Haizea eten egiten zuen bere zaldi beltzak. Lehena zen beti erasoan, ezpata eskuan, luma zuriko gandor, guda bakoitza kontu pertsonala bailitzan:

—*Nik ez dut garaipena lapurtzen* –esan ohi zuen.

Eta ederki asko oroitzen zen Aristoteles bere maisuaren ikasgai ederraz:

—*Agintzeko jaiok eta men egiteko jaiok, horra hor jendea banaturiko bi aldeak.*

Ukabil tinko itzaltzen zituen matxinadak, oldartuak gurutziltzatu edota harrikaturik, baina konkistatzaile bitxia

ere bazen, menperaturik oen ohiturak errespetatu eta are haiek ikasteko atrebentzia ere bazuena. Agintaririk gorena izateko jaioa, erregeen errege, Balkanetatik Indiarainok o itsaso eta lurra oro bereganatu zituen, Egipton eta Persian barna, aurkitutako guztia barne, eta nonahi erein zituen ezkontzak. Soldadu greziarrak tokian tokiko emakumeekin ezkonarazteko haren azerik eria berrikuntza zakarra izan zen Atenasentzat, batere gogoko ez zela izan bertan, baina Alexandroren boterea eta ospea finkatu zituen bere mundu mapa berrian.

Efestion izan zuen beti lagun ibilaldi eta gudualdi orotan. Guda zelaietan eskuin beso, eta maitale ospatze gauetan. Harekin eta bere milaka zaldun geldiezinekin batera, lantza luzez, suzko geziz, zazpi hiri sortu zituen, zazpi Alexandriak, eta bazirudien hura sekulan bukatuko ez zela.

Efestion hiltzean, ordea, elkarrekin partekaturiko ardoa bakar bakarrik edan zuen Alexandro eta egunsentiarekin bat, guztiz horditurik, zerua erretzeko sutetzarra altxatzeko agindu zuen eta inperio osoan musika galarazi.

Handik gutxira hil zen bera ere, bere adinek hogeita hamahiru urtez, munduan ziren erreinu guzti-guztiak konkistatzeke.

Homero

Ezertxo ere ez, inortxo ere ez. Ezta mamurik ere ez zen. Harri mutuak besterik ez, eta hondakinen artean ardiren bat edo beste, larre bila.

Ikusteko gai izan zen halere poeta itsua, ordurako izan ez zen hiri handia, hantxe bertan. Harresiz inguraturik zuen ikusi, muinoan altxatua, badiari so; eta uluak zituen aditu eta hiria birrindutako gudaren trumoi hotsak ere harrabots.

Eta kantatu egin zion kanta. Troiaren birsorrera izan zena. Berrito jaio zen Troia, beraz erdi zirela Homeroren eleak,

suntsipenetik lau mende eta erdi geroago . Eta Troiako guda, ahantzura patu, guda guztietarik entzutetsuena bilakatu zen.

Hura merkataritza gerra izan zela diote historiagileek. Itsas Beltzerako igarobidea itxia zuten Troiarrek, eta g aresti zegoen bidesaria. Dardaneloetak o itsasartetik Ekialderak o bidea irekitzeko suntsitu zuten greziarrek Troia. Baina munduan izaniko guztiak, edo ia guztiak, merkataritza gerrak ziren izan. Zer dela eta, beraz, hain oroig arri bihurtu oroitzeko berezirik ezer gutxi zuen guda hura? Troiako harriak hondar bilakatuko ziren, hondar hutsa, berezko patua hondamen, eta hara non Homerok zituen ikusi eta entzun.

Berak kantaturikoa, irudikeria hutsa ote?

Zisne arrautzatik jaiotak o Helena erreginaren bila bidalia izan omen zen mila eta berrehun ontzik o ontziteria ere fantasia hutsaren emaitza?

Hektor menperatuta, zaldi-gurdiari loturik Akilesek tataraska eramane eta hiri setiatuk o harresien inguru zenbait itzuli eman zioneko hura ere Homerok asmatua?

Eta Afroditararen istorioa, Paris galdurik ikusita, laino magikozko mantupean bildu zueneko oa, ez ote zen hura izanen sukar edo horditasunezko amesgaitza izango?

Eta Apolo Akilesen orpoaren bila gezi hilg arria gidatzen arituarena?

Odiseo, Ulises goitizenez, bera izango ote zen troiarrei ziria sartu zien zaldi erraldoiaren sortzailea?

Egiaren zantzurik ba ote du Agamemnon garailearen amaierak, hamar urteko guda horretatik itzuli zela emazteak bainuan akabatu zezan?

Emakume horiek eta gizon horiek eta jainkosa horiek eta jainko haiek, hain gure antzek o, jeloskor, mendekati, traidore izan ote ziren?

Batek daki ba ote ziren izan.

Ziur den bakarra izan badirena.

Txakurra literaturak sortu

Argos izan zuten izen ehun begik o erraldoiak eta duela lau mila urteko hiri grekoak.

Argos izenekoa ere bai, Odiseo hura mozorroturik ezagutu zuen bakarra, Itakara itzuli zenean.

Odiseo itzuli zela kontatu zigun Homerok, guda luze eta itsas zabalen buruan, eta hurbildu zela etxera ajez jotak o eskale zarpail gisan.

Inor ere ohartu ez hura bera zenik.

Inor ez lagun bat izan ezik, jada zaunkan ere jakin ez eta ibiltzeko zein mugitzeko gauza ez zena. Bazetzan Argos, bebarru bateko ataurrean, amore emana, kaparrez josia, heriotzaren zain.

Eskale hura bazetorrela ikusirik, usnaturik beharbada, burua altxatu eta buztana inarrosi zuen.

Hesiodo

Homeroz, ezertxo ere ez da ezagun. Zazpi hirik dagite zin bat bedera izan izana haren sehaska. Beraietan barna zebilkeen agian Homero, gauren batean bertsoak ozen esaten, aterpe eta janaren truke.

Hesiodoz zera diote, Asera izenek o herrixkan jaio eta Homeroren aroan bizi izan zela.

Honek ez zuen gerlarien aintza goretsi, baina. Beoziak o laborariak zituen heroi. J ainko gupidagabeen madarikazioa patu eta betebehar, lur elk orrari uzta urriak ebasten zizkion gizonen egunez eta lanez aritu zen Hesiodo.

Egurketa Sirio zeruan agertzean egiteko aholkatzen zuen haren poesiak,

mahatsak jasotzeko, berriz, Siriok hegoalderantz bidaiatzean,

garia jotzeko, Orion datorrenean,

uzta biltzeko, Pleiadeak ageri eta ilkitzean,

lurra goldatzeko, Pleiadeak ostendu berritan,
biluzik laboratu
eta mesfi dati ibiltzeko itsasoaz, lapurrez, emakumeez,
mihi bihurriez eta zori gaiztoko egunez.

Troiaren buru-hiltzea

Homeroren arabera, Atenea jainkosa izan zen burutazioa Odiseoren belarrira xuxurlatu zuena. Eta horrela zuzenki zaldi batek g araitu zuen gudaroste grekoen erasoari hamar urtez eutsitako Troia hiria.

Zergatik utzi zion sartzan Priamok, Troiako erregeak? Harresien aurrean zain, abere erraldoi bitxi hori azaldu zenetik gorria izan zen sukaldeetakoa kea, eta negar anpulu ziren estatuak eta erramuak ihar, eta zero ortzia izarrik gabe huts. Zuzia isioturik jaurti zion Kasandra printzesak suziri, eta Laokoonte apaizak lantza sartu saihetsean. Zer zeukan ikustearren, ebaki eta ebatz zeritzoten erregearen aholkulariek, eta Troia osoan ez zen inor izan abere hura amarruz beterik zegoelako susmopean ez zenik.

Galbidea hautatu zuen hala ere Priamok. Atenea jainkosak oparia bakoitzi ikur gisa bidalia zuela sinetsi nahirik edo. Hura ez laidotzearen, harresia zabaltzeko agindu zuen eta eskero oneko gorazarre kantuz egin zioten ongi etorria zaldiari.

Haren erraietatik jalgi ziren Troia bertoko azken harria birrintzeraino suntsitu zuten soldaduak. Eta euren menperatuak esklabo izan zituzten, eta euren menperatuen emaztekiak, euren emazte.

Heroia

Nolakoa zatekeen Troiako gerra gudari ezezagun baten ikusmiratik kontatua? Jainkoek ezikusiarrena egin eta guduen

gain heg an zebiltzan saientzat soilik gurari izanik o greziar xumeren batenetik? Inork kantatu g abeko, inork zizelkatu gabeko gerlari bihurtu nekazari batenetik? Erailtzera behar - tua zuketan eta Helenaren begiengatik hiltzeko batere gogorik ez zukeen gizon erabat arrunt batenetik?

Geroago Euripidesek egiaztaturik oia barrundatu o zukeen soldadu xume horrek? Alegia, Helena sekulan ez zela Troian izan, haren itzala baino ez zela bertan izan? Hamar urteko sarraskiek, hain zuzen ere, tunika huts bategatik gertatu zirela?

Eta soldadu horrek bizirautekotan, zer ote zuen oroit?

Batek daki.

Agian usaina. Minaren usaina, eta horixe besterik ez.

Troia jausi eta hiru mila urtera, gudek usainik badute-la dioskute Robert F isk eta F ran Sevilla gerra kazetariak. Batean baino gehiagotan izanak dira berauek, barrutik dituzte pairatu eta ustel kirats hori ezagutzen dute, bero, gozo, itsaskor, azal txulo orotatik barneratu eta erraietan atxiki ohi zaizuna.

Sekulan utziko ez zaituen goragalea.

Sendi argazkia Grezian

Alderantziz bidaiatu zuen eguzkiak zeruan barna eta ekialdetik alde egin. Hain egun bitxi hura hil arteko oian, Mizenasko errege-aulkiaz jabetu zen Atreo.

Koroa buruan dardarka zebilkiola nabari zuen Atreok. Ahaidego osoari ezkel begiratzen ziola. Iloben begiak botere goseze dir-dir. Badaezpada, moztu zien lepoa. Xehe-xehe zatikatu, sukaldatu eta jaki bakar mahairatu zituen iloben gor - puzkinok, Tiestes anaiari, hots, hildakoen aitari eskainitako oturuntzan.

Atreoren seme, Agamemnonek hartu zuen oinordetzan jargoia. Bere osabaren emaztea, Klitemnestra, gustatu zitzaion

erreginarako. Osaba akabatzea beste aukerarik ez zuen izan. Eta, zenbait urte gerora, Ifigenia bere alabarik ederrenaren lepoa moztu beharra ere halatsu suertatu. Honako hau Artemisa jainkosak aginduta egin zuen, haren meneko satiro, zentauro eta ninfa saldoek aldeko haizeak eman diezazkioten opari Troia erreinuaren aurkako gudara itsasoratutako ontzietan.

Guda amaieran, ilbeteko gau batean, garaipen urratsez sartu zen Agamemnon Mizenasko bere jauregian. Klitemnestra erreginak ongi etorria egin eta bainu bero-beroa eskaini zion. Bertatik ateratzean, berak ehunduriko sare batean bildu zuen, ordea. Hilatorra Agamemnonentzat sare hura. Egistok, Klitemnestraren amoranteak, bi ahoko ezpata sastatu zion Agamemnoni, eta erreginak aizkoraz burugabetu bere senar errege.

Aizkora berberaz mendekatu zuten aita, askoz geroago, Elektrak eta Orestesek. Agamemnon eta Klitemnestraren seme-alabek ama eta beronen maitalea birrindu egin zituzten, eta, hartara, etorri handiko iturria oparitu Eskilo poetari eta Freud doktoreari.

Izter estutuzko greba

Peloponesoko gerra betean, Atenas, Esparta, Korinto eta Beozia emakumeek grebara jo zuten gudaren aurka.

Munduko historian, huraxe izan zen izter estutuzko lehen greba. Antzokian zen gertatu. Aristofanesen irudimenetik, eta berak Lisistrata Atenasko emaginaren ahoz ozen eginiko aldarritik sortua:

—Ez hankak zeruraino pekoz goiti, ezta lau hankatan ipurdia ageri!

Jarraitu egin zuen grebak, su-etenik ez, maitasun barauak gudariak amore eman arazi arte. Kongsolagarririk gabe borrokatzeaz estu eta larri, eta emakumeen oldarraz izututa, guda zelaiei adio esan beste hautabiderik ez zuten izan.

Goiti behiti, horrelaxe zuen Aristofanesez kontatu, asma-tu. Idazle kontserbadorea izanik tradizioak egiatan sinetsik o bailituzkeen defenditzen zituen arren, funtsean sakratutzat soilik irri egiteko eskubidea zuenak.

Eta bakea zen izan, eszenatokian.

Errealitatean ez.

Hogei urte luze zeramatzaten gudan grek oek antzerki hau estreinatu zenerak o, eta beste zazpi urtez luzatu zen sarraskia.

Berdin-berdin jarraitu zuten emakumeek greba eskubiderik gabe, iritzi eskubiderik gabe, beren sexuaren berariazko zereginei men egin beharraren eskubidez beste eskubiderik gabe. Antzerkigintza ez zen zeregin horietakorik. Ikusle joan zitezke en, toki txarretan, goieneko ohol mailetan beti, baina jokatu ezin joka inola.

Ez zen aktosarik. Aristofanesenean, emakume maskaraz jantzitako gizonek jokatu zuten Lisistrata eta g ainontze-ko protagonistena.

Zeu arte su-marra bitarte

Korintoko golkoan, ohatzeren batean, lotan dagoen maitalearen soslaiari so dago emakumea, suaren argitan.

Horman, itzala isla.

Amorantea, ondoan datzana, joan egingo da. Egunsentian joango da gudura, heriotzara joango. Eta itzala ere, adiskide eta bidaide, berarekin joango da eta berarekin hilko.

Gau betea da artean. Txingarretatik ilintia eskuratu du emakumeak eta marraztu, horman, itzalaren inguru lerroa.

Arrastook ez dira joango.

Besarkatu ez dute egingo, badaki eta berak. Baina ez dira joango.

Sokrates

Zenbait hiri ari ziren borrokan alde batean zein bestean. Guda greko hau baina, greziar gehien akabatu zuena, Espartaren guda izan zen batez ere, gutxi izateaz harro ziren gutxiren oligarkiarena, Greziaren aurka, guztiak izatearena egiten zuten gutxiren demokraziaren aurka.

Kristo aurreko 404 urtean, txirulen soinupean, motel-motel, krudelkeria betez birrintu zituen Espartak Atenasko harresiak.

Atenastik, zerk zirauen? Bostehun itsasontzi hondoratu, izurriak akabaturik o laurogei mila gorpuk, sarraskituri-ko gerlarien k opuru zenbatezinak eta hiriak, buru makur, elbarriz eta eroz lepo.

Eta Atenasko zuzentzak bertoko gizonik zuzenena zigortu zuen hiltzera.

Agorako maisu handia, herriko plazan zebilen bitartean ozen gogoetatuz egia bilatzen zuena, guda amaiberrik o hiru gudutan borrokatua zena, errudun zuten aurkitu. *Gazterien galtzaile*, eman zuten epaileek, nahiz eta agian zera adierazi nahi izan zuten, Atenas maitatu izanaren errudun zela, beti hari adar joka, kritikan zorrotz eta losintxetan motz.

Olinpiadak

Elkar hiltzeak zorutzen zituen greziarrak, baina gerraz g ain beste kiroletan ere baziren aritzen.

Olinpia hirian lehiatu ohi ziren, eta olinpiadak burutu artean, beren arteko gudez ahantzi, lipar batez bederen.

Den-denak biluzik: lasterkariak, jabalina eta disk oia jaurtitzen zuten atletak, jauzilariak, boxeolariak, borrokalariak, zaldi-lauhazkan edo kantuan lehiatzen zirenak, guzti-guztiak. Batek ere ez zuen markak o zapatilarik janzten, ezta modako elastik orik ere, ukenduz dir-dir zerien nork bere larrua ezik beste ezer ez soinean.

Txapeldunek ez zituzten dominak jasotzen. Erramu koroa zuten irabazten eta zenbait pegar oliba olio, bizi osora-ko musu truk jateko eskubidea, erkideen miresten eta errespetua.

Lehen txapeldunak, Korebus delako batek, sukaldari ateratzen zuen ogibidea, eta horretan ihardun zuen aurrerantzean ere. Lehenbizik olinpiadan, bere aurkariak baino , eta ipar-haize beldurgarriek baino, azkarkiago egin zuen lasterka.

Partekaturiko identitate zeremoniak ziren olinpiadak. Kirola eginez, honakoa zioten gorputz horiek, hitzik gabe: *Goroto diogu elkarri, elkarren aurka borrokatzen, baina greko gara oro.* Eta horrelaxe izan zen milaka urtez, harik eta kristautasun garaileak Jaunari samin emanik o larru gorrikeria jentilok debekatu zituen arte.

Emakumeek, esklaboek eta atzerritarrek egundo ez zuten parte hartu Greziako olinpiadetan.

Ezta Greziako demokrazian ere.

Partenon eta ondoren

Goibelak jota hil zen Fidias, garai oroz bekaizk eriak jotako eskulturagilerik joena. Espetxez zigortu zuten bere trebezia jasangaitza.

Mende ugari geroago, usurpazioz ere zigortu zuten Fidias.

Bere artelanik onenak, Partenongo eskulturak, ez daude jada Grezian, Londresen baizik. Eta ez dute *Fidiasen marmolak* izen, baizik eta *Elginen marmolak* dituzte deitzen.

Lord Elgin, eskulturagiletik antzik ere ez zuena, bera izan zen duela mende pare bat edo , miragarri horiek ontziratatu eta bere gobernuari saldu zizkion enbaxadore ingelesa. Harrezkero British Museumen daude.

Lord Elgin horrek eraman zuena eraman zuenerako, Partenon hura izarpeak eta inbasioek jota zegoen engoitik.

Atenea jaink osaren betierek o aintzaren alde jaiotak o jainkotegiak Ama Birjinaren eta bere apaizen inbasioa pairatua zuen, zenbait irudi kendu, hainbat aurpegi ezabatu eta zakil guzti-guztiak moztu zituztela. Eta urte anitz geroago gudaroste veneziarren inbasioa zen gertatu eta jaink otegiak, bolborategi bihurtuta, leher egin.

Aurri hutsetan geratu zen P artenon. Lord Elgin hark erauzitako eskulturak hautsiak ziren, eta dira. Izan zirenaren adierazle zaizkigu hondakinok:

 tunika hori marmol puska hutsa da, baina bere zimurretan emakume edota jainkosa gorputz da olatueran;
 belaun hori dagoeneko ez den hankan da iraunkorra;
 bularralde hori burugabetutako bere buruan osatzen;
 faltan den zaldia airean harroturik o zurdetatik dabil irrintzika, eta airean lauhazkatak hanketan trumoika.
 Izan baden apurrean, izan zena oro bada.

Hipokrates

Medikuntzaren Aita esaten diote.

 Sendagile berriek haren izenean egiten dute zin.

 Duela bi mila eta laurehun urte, sendatu eta idatzi zuen egin.

 Honakoak dituzu, berak dioenez, bere eskarmentutik sorturiko aforismo zenbait:

Eskarmentua iruzurtia da, bizitza labur, luzea da sendatzeko artea, iheskorra aukera eta zaila epaikuntza.

Medikuntza arte guztietatik nobleena da, baina besteen oso atzean dabil bertan dihardutenen ezjakintasuna dela medio.

Bada guztiona den zirkulaziorik, guztiona den arnasarik. Guztia guztiarekin lotuta dago-eta.

Ezin daiteke gorputz atalen izate era uler, soin osoarena ulertzeke.

Sintomak gorputzaren berezko babesak dira. Gaixotasun esaten diegu guk, gaixotasunaren sendabide dira izan, ordea. Eunukoek burusoiltasunik ez. Burusoilek barizerik pairatzen ez. Izan bekizu janaria elikagai, eta elikagaia sendabide. Bat sendatzen duenak, hil dezake bestea. Semez haurdun den emakumea, kolore oneko. Alabaz izatekotan, berriz, kolore txarreko.

Aspasia

Periklesen garaian, Atenasko emakumerik ospetsuena izan zen Aspasia.

Beste eratan ere esan liteke eena: Aspasiaren garaian, Atenasko gizonik ospetsuena izan zen Perikles.

Emakume eta atzerritar izatearena ez zioten barkatzen etsaiek, eta akatsak eranstearren, iragan aitorrezina egozten zioten, eta esaten berak gidaturik o erretorika eskola neska gaztetxo erraxen haztegia zela.

Jainkoak mespretxatzeaz zuten akusatu, heriotzaz zigorzitekeen irainaz. Mila eta bostehun gizonez osaturiko auzitegiaren aurrean, Periklesek defenditu zuen. Errugabetu zuten Aspasia, nahiz eta hiru orduko hitzaldian Periklesek zera ahaztu zuen esatea, jainkoak mespretxatu ez baina jainkoek gu mespretxatzen gaituztela, horretaz bai sinestun peto-petoa zela Aspasia, baita jainkoek jendeari zoriontasun iheskorra hondatzen digutela ere.

Artean, Periklesek bere emaztea ohetik eta etxetik egoztia zuen jada eta Aspasiarekin bizi. Eta beronekin izaniko semearen eskubideak babestearren, berak emaniko lege bat urratu zuen.

Aspasiari aditzearren, eten egiten zituen bere ikastaroak Sokratesek. Anaxagorasek haren iritziak aipatzen.

—Zein arte, zein botere zeukan emakume honek, politikorik bikainenak menpean izateko eta fi losofoak goiargitzezko? —galdetu zion Plutarkok bere buruari.

Safo

Urria da Safoz dakiguna.

Duela bi mila eta seiehun urte jaio zela diote, Lesbos uhartean, beragatik eman ziola honek lesbianeizena.

Ezkondua zela diote, seme bat zuela, eta marinel batek aintzat hartu ez zuelak o labar batean amildu zuela bere burua, baita esan ere itsusi eta txikerra zela.

Batek daki. Eutsi ezinezko gure xarmek liluraturik erori orde, emakumeak beste emakume bat nahiago izatearena ez baitugu oso gogokoa izaten arrok.

1703 urtean, Eliza Katolik oak, gizonetzko-boterearen gotorleku, Saforen liburu guztiak erretzeko agindu zuen.

Zenbait poema izan ziren salbu, bakan batzuk.

Epikuro

Atenasko bere lorategian, beldurren aurka mintzo zen Epikuro. Jainkoei, heriotzari, minari eta porrotari beldur izatearren aurka.

Harropuzkeria hutsa dela, halaxe zioen, jainkoak gutaz arduratzen direla sinestea. Haien hilezk ortasunetik, haien hobezintasunetik, ez oparirik ez zigorrik ematen digutela. Jainkoak ez direla ikaratzek oak, geuk, iragankorrok, gaizki eginok, haien arreta eza baino ez baitugu merezi.

Heriotza ere ez da ikaratzek oa, zioenez. Gu izan bagaren bitartean bera izan ere ez da; eta bera izan badenean, izateari utzi diogu jada.

Minari beldurrik? Minarekik o beldurra da minik mine-na, baina ez dago atsegin atseginagorik mina joaten denekoa baino.

Eta porrotarekiko beldurra? Zein porrot? Ezer ez da aski nahikoa gutxi zaionarentzat, baina zein aintza loria liteke arrats eguzkitsuan adiskideekin hitz eta pitz aritzek o atseginarekin pareko? Zein boterek dauka maita, jan, edan arazten digun premiak adina indar?

Egin dezagun zoriontsu bada, Epikurok iradoki, bizitzaren hilkortasun ekidinezina.

Herri ziurgabetasuna sortu

Demokrazia grekoak askatasuna zuen maite, baina bere gatibuen lepora bizi. Gizon-emakume esklaboek laboratzen zituzten lurak,

urratzen bideak,
zultatzen mendiak zilar eta harri bila,
eraikitzen etxeak,
ehuntzen jantziak,
josten zapatak
sukaldatzen,
garbitzen,
ekortzen,
forjatzen lantzak eta halakretak, aitzurrak eta mailuak,
eman atsegina jaietan eta burdeletan,
eta hazi-hezi jabeen seme-alabak.

Esklaboa mandoa baino merk eagoa zen-eta. Esklabotza, lirdinga likits, oso bakanetan ageri ohi zen poesian, antzerkian edota ontzietako zein hormetako margo apaingarrietan. Ez ikusiarena egiten zioten filosofoek, behe mailako izakien berezko patua horixe zela berresteko baino ez, izatekotan, eta alarma jotzeko sutuki. Erne haiekin, ohartarazten zuen Platonek. Esklaboak, zioenez, jabeak gorrotatzeko joera ekidinezinaren jabe dira, eta soilik zaink eta etengabeak saihets lezake gu guztiok hil gaitzaten.

Eta Aristotelesek hiritarren prestak eta militarren ezinbestekoa zeritzon, ziurgabetasuna nagusi zenez gero.

Esklabotza Aristotelesen aburuz

Besterena den jende oro izaeraz da esklabo, berez. Jendea izaki besterena dena jabearen ondasuna da, tresna. Esklaboa tresna biziduna da, lan tresna esklabo bizigabea den era berean.

Izatez badira mota ezberdinetako nagusi eta menpekoak. Askeek esklaboei diete agintzen, gizonak emakumeei eta helduek haurrei.

Basa piztien aurkako ehiza eta menpeko izateko jaiok izanik makurtzen ez diren gizonen aurkakoa ere barnebiltzen ditu gerraren arteak; eta gerra hau berez da bidezko, izatez.

Bizitzaren premiak asetzeko mirabetza fisikoa esklaboengandik eta abereengandik dator . Horrexegatik izan da izadiaren borondate esklaboaren eta gizon askearen gorputzen taxukera bereizi izana.

Erne bakanalekin

Erroman ere, eguneroko eguzkia eta gaueroko amesgaiztoa izan ziren esklaboak. Bizia eta izua ematen zion jende jopuak inperioari.

Bakoren jaiak ere araubidearen etsai omen ziren, gaueko errituetan ez baitzegoen askeen eta esklaboen arteko hesirik, eta ardoak baimendu ohi zuen araubideak debekaturikoa.

Haragikeriatik mailen iraulk eta: hegoaldean lehertzen ziren esklaboen matxinadekin lotura estua zuten lizunkeriak, halaxe zen, susmo biziz, ezagun gutziz.

Ez zen beso gurutzaturik egon Erroma. Kristo aurretik mende pare bat lehenago, Bakoren jarraitzaileei konspirazioa leporatu zion Senatuak eta agindua eman biki ontzuli, Marcius eta Postumiusi, inperio osoan bakanalen sustrai-errorrik txikiena bera ere erauzteko.

Odola zerion oparo.

Bakanalek zirautela. Matxinadek ere bai.

Antioko, errege

Ugazabak pailazotzat erabiltzen zuen oturuntzetan.

Eunus jopua trantzean sartu eta su eta k e aritu ohi zen ahotik, gonbidatuei irri eragiten zieten igarpenak oka.

Tripa festa horietak o batean, estasi unearen eta g arren ondotik, bera uhartek o errege izango zela irag arri zuen Eunusek, serio demonio. Ene erreinua izango da Sizilia, esan zuen, eta esan ere Demeter jainkosak esan ziola.

Zilipurdika erortzeraino egin zuten barre gonbidatuek.

Zenbait egun geroago , ordea, errege zen esklaboa. Aho- tik suteak zerizkiola, moztu egin zion lepoa bere jabeari, eta piztu zuen herriak eta hiriak bereg anatutako esklabo matxi- nada latza, eta koroatu egin zuten Eunus Siziliako errege.

Sugarretan zen uhartea. Atxilo guztiak akabatzek o agin- du zuen monarka berriak, armak ek oizten zekitenak izan ezik, eta txanpon berriak jaulki, berauetan Antioko bere izen berria Demeter jainkosaren irudiaren ondoan ageri zela.

Lau urte iraun zuen Antiokoren erreinuak, harik eta trai- zioak menperatuta, espetxeratuta, zorriek guztiz jan zuten arte.

Mende erdi geroago, heldu zen Espartako.

Espartako

Artzain izan zen Trazian, soldadu Erroman, gladiadore Kapuan.

Esklabo ihes egina ere izana. Sukalde aitzo batez armaturik egin zuen hanka, eta Vesubio sumendiko magalean sortu jende askearen gudarostea, ibiliaren ibiliaz hazi eta armada izan zena.

Kristo aurretiko hirurogeita hamabig arren urtean, Erro- ma dardaran izan zen goiz batean. Espartak oren gizonak ikusten zituztela ikusi baitzuten erromatarrek. Mendi mui- netako lerroak lantzez lazturik, triku argitu zuen. Handik goialdetik, erreginarik erregineneko jauretxeak eta jauregiak

zituzten begiradapean esklaboek, mundu osoa bere menpean zuena euren eskurag arri, euren begiek jota, izenak eta oroimenak erauzi zizkien hiria bera, zigortu, jipoitu, oparitu edo saldu zitezkeen gauzak bihurtu zituen, hortxe.

Erasoa ez zen burutu. Ez zen egundo argitu Espartak o eta bere aldekoak haraino heldu ote ziren, bertan-bertaraino, ala horiek izuaren irudikeria hutsak izan ote ziren. Zeren eta egun haietan, egundok o jipoi umiliag arriak ari zitzaizkien banatzen esklabo saldoak legioei.

Bi urtez luzatu zen gerrilla guda hori, inperioa beldurrak airean eduki zuena.

Azkenik, inguratu eta hesi zituzten matxinoak, Lukania-ko mendietan, eta bertan sarraskitu Julio Zesar izeneko militar gazteak Erroman bildu izaniko soldaduek.

Bere burua g araitua ikusirik, Espartak ok bere zaldiaren buru gainean etzan zuen burua, bekokia gudu guztietak o lagunaren bekokiari atxikiz, eta aizto luzea sastatu zion sakon, eta bihotza erdiratu.

Kapatik Erromaraino, Appia bide osoan barna, gurutze berriak altxatu zituzten arotzek.

Erroma tour

Eskulana esklaboen kontua zen.

Eta jende jopua ez izan arren, *ogibide likitsak* burutzen zituzten laborariak eta artisauek. Zizeron izan zen, lukurreria lanbide ohoretsuan ziharduela, beharren mailak zehaztu zituen:

—*Tripontzikeriari mesede eginikoak dira guztietarik ohorean murritzenak, hala nola, hestebete egilea, hegazti edo arrain saltzailea, sukaldaria...*

Erromatarrik errespetatuenak ziren guda jauntxoak, bakanetan oso borrokatzen zutenak, eta lurjabeak, lurra oso bakanetan ukitu ohi zutenak.

Krimen barkaezina zen txiroa izatea. Halak o ohore galararik gainzuritzearren, behera jotak o aberatsak zorpetu ohi ziren eta, zori onik izatek otan, politika jardueran arrakastatsu ibili, euren zordunen onuran arituz.

Sexu mesederen salmenta aberastasun iturri oparo eta ziurra zen. Baita mesede politik o eta burokratik oena ere. Biak ala biak izen berek o. Prostituzio jarduneko enpresariiek eta *lobby*ko profesionalek *proxeneta* zuten izen.

Julio Zesar

Burusoil putazale alua esaten zioten, emakume guztien senar eta senar guztien emazte omen zela.

Albiste garbiko iturriek ziurtatzen zuten Kleopatraren logelan zenbait hilabetez izana zela bertan itxita, sudurra ere ageri ez.

Bere garaikur zuela, harekin itzuli zen Erromara Alexandriatik. Eta Europak o zein Afrikako gudaldi garaileak boro bilduta, bere aintzari berari gorespen eta omen egin zion, gladiadore multzo gaitza *hil hadi*ra bidaliz, eta Kleopatrak oparitutako jirafak eta beste hainbat bitxikeria erakutsiz.

Eta Erromak purpuraz jantzi zuen, inperio osoan k olore horretako toga bakarra zegoela, eta erramu k oroaz jantzi haren bekokia, eta Virgiliok, poeta ofizialak, haren jainkotiar leinua goratu zuen, Eneas, Marte eta Venusengandik omen zetorrena.

Eta handik gutxira, erpinaren erpinetik, biziarteko diktadore aldarrikatu zuen bere burua eta bere klase mailaren pribilegio ukiezinak mehatxupean jartzen zituzten erref ormak iragarri.

Eta beretarrek, patrizioek, zera zuten erabaki, hobe gaur adi eta ez bihar eri.

Eta guztiahalduna, hiltzek o markaz xakiturik, hurbilenekoek zuten inguratu eta Mark o Bruto bere maite-maiteak,

seme ere ba omen zuenak agian, lehen besarkadan sano estutu eta berak lehen sastakada sartu zion bizkarrean.

Eta beste zenbait sastakaik josi zuten, eta ondoren zerura, gorritz, jaso.

Eta hantxe zetzan gorputza gorpu eraitsita, harrizko zoruan, bere esklaboak ere ez baitziren ukitzen ausartu.

Inperio honen gatza

Kristo aurreko 31 urtean gerra jo zuen Erromak Kleopatra eta Marko Antonioren aurka, berau Julio Zesarren primu, ospean eta ohean.

Augusto enperadoreak, orduan, iritzi publikoa erosi zuen gatza oparituaz.

Gatzerako eskubidea aitortua zioten patrizioek jendexumeari, Augustok dosia handitu baina.

Erromak maite egiten zuen gatza. Haitz edo itsas gatza, beti egoten zen gatzik erromatarrek sortu ohi zituzten hirien aldirietan.

Via Salaria, gatz-bide izendatu zuten lehen bide inperio-koa, Ostiako hondartzatik gatza ekartzeko egina, eta *salario* hitza, *soldata*, jardunaldi militarretan legionarioek jaso ohi zuten soldaduen gatza-saritik dator.

Kleopatra

Astama esne eta ez-titan bainatzen dute bere gorte neskameek.

Jazmin, lirio eta atxapar uretan gantzutu ondoren, lumaz beteriko zetazko kuxin handitan etzan dute haren gorputz biluzia.

Betazal itxien gainean, aloe xerra xehe-xeheak. Aurpegi- eta lepoan, saman, idi behazunez, ostruka arrautzaz eta erle ezkoz eginiko txaplatak.

Lo kuluxkatik itzartzerako, ilargia zeruan da dagoeneko.

Gorte neskameek arrosaz igurtzi dizkiote eskuak eta almen-
dra olio eta azahar liliz oinak lurrindu. Besapeak limoi eta kane-
la urrinez hasperenka dira ari, eta basamortuk o datilek usain
goxoa ematen diote bere adatsari, intxaur olioiz distiratsu.

Eta makillajeari datorkio txanda. Kakalardo hautsak k olo-
reztatzen dizkio masailak eta ezpainak. Antimonio hautsak
marratzen bekainak. Begi inguruk o itzal urdin eta itzal ber-
dezko katamaloa diote margotzen lapis lazuliak eta malakitak.

Alexandriako bere jauregian, bere azken gauean barnera-
tzen ari da Kleopatra.

Azken faraoisa,
dioten bezain ederra izan ez zena,
dioten baino erregina hobeia izanikoa,
ele anitzez mintzatu, eta ek onomiaz zein beste gizonez-
ko misterioz bazekiena,

Erroma txunditu zuena,

Erromari erronka egina,

Julio Zesar eta Marko Antoniorekin ohea eta boterea par-
tekatu zituen,

arroparik itsugarrienez orain da jantzi, eta poliki-poliki
errege-aulkian eseri, erromatar gudarosteak bere aurka, gero
eta hurbilago direlarik.

Julio Zesar hilik, hilik Marko Antonio.

Egiptoren babesak, erori.

Lastozko saskia irekitzeko agindu du Kleopatrak.

Kaskabiloa dilinka da ari.

Sugea, saga-saga.

Eta zabaldu egiten dio tunika Nilok o erreginak eta bere
bular biluziak eskaintzen, urre hautsaz dir-dir.

Egiaztaturiko antisorgailu eraginkorrak

Maitasuna eta berehala doministikuka ekiditen zituzten
umeak emakume anitzek Erroman; ogibidez aritutak oek,
ordea, une gorenean aldakak astintzea nahiago, haziak

desbideratzeko eta. Plinio zaharrak zioen ezen emakume txiroek kutun batez ekidin ohi zituztela umeak, armiarma iletsu baten burutik ateratak o harrez egin eta orein larrutan bildutako kutun hori egunsentia baino lehen lepotik zintzilikatuaz. Goi mailako andereek, berriz, lehoi emeen umetoki zatitxoak edota katu gibekek oa zeukan bolizko tutuluxka eramanez uxatzen zuten haurdunaldia.

Denbora luze-luze geroago, Espainian, honako otoitz hutsezina zuten sinestunek gauzatzen:

*Joxe Deuna, jo gabe eduki zenuena,
Jozazu otoi, eduki gabe jo dezadan.*

Show business

Isiltasun osoa. J ainkoei galde ari dira eta apaizak. Zezen zuria barrenustu dute, erraiak irakurri. Eta bat-batean musika leher, leherketa uluka: bai, baietz diote jaink oek, jai behingoan has dadin beraiek ere gogobetez erotuta daudela.

Heriotzara doazenak, gladiadoreak, armak jasorik dira enperadorearen palkoari begira. Esklaboak dira, edota heriotzara zigorturiko gaizkileak; zenbaitzuk, ordea, lan bizitza zinez laburrerak o luze prestatzen diren eskuletatik datoz, enperadorearen hatz erpuruak lurrari begira azken eguna motz-motzean ezarri arteko bizitzan dirautela.

Gladiadore entzutetsuenen aurpegiak saltzen dira harmailetan, kameu, xafla eta trastetan marraztuta, ogiegin berria bailiran saldu ere, ikuslegoa erotzen delarik trabesak biderka, irainak eta txaloak orroka.

Hainbat egunez luza daitek e ikuskizuna. Enpresari pribatuek kobratzen dituzte sarrerak, ederki garesti gainera; baina batzuetan politik oek dohainik eskaintzen dituzte triskantzok. Harmailak zapiz eta pankartaz jantzi ohi dira orduan, herriaren lagunaren alde bozkatzera deika, hitz emanikoa betetzen duen bakarraren alde.

Hondarreko zirkua, odolezko salda. Hareatzara salto egin eta herio borrokaldi betean ziren bi gladiatoreren artean bitartekari jartzeagatik merezi izan zuen deuntasuna. Telemako izenek o giristinoak. Birrintu, xehe-xehe egin zuen ikusleriak, harriz josita, ikuskizuna eten zuelako.

Sendi argazkia Erroman

Hiru mendez, Erroma bera izan zen infernua eta deabruak bertoko enperadoreak, Koliseoko hareatzean giristinoak pizti gosetietara botatzen zituztela. Ikuslegoa, pozarren. Inork ere ez zuen halako hamaiketakorik galdu nahi izaten.

Hollywoodeko historiagileen baitan, Neron izan zen g aiztorik gaiztoena. San P edro apostolua buruz behera gurutziltzatu berak egin zuela diote eta zera diote g aainera, Erromari su ematearena kristauei errua leporatzearen egin zuela. Eta inperioko ohitura ere bete zuen sendi oso-oso garbituz.

Lepida bere izebari, hazi zuenari, libragarria ezarri zion, eta perretxiko pozoituz esan betik o adioa Britanik o erdi-a-naia zuenari.

Oktavia bere erdi-arrebarekin ezk ondu eta gero, deserriratu egin zuen, eta ito zezaten agindu. Alargun eta ask e, Popearen edertasun pareg abeari ozen ahal izan zion kantatu, enperadorea egin ere eginez, harik eta beraz nekatu eta ostikadaz beste mundura jaurti zuen arte.

Agripina izan zen akabatzek o gaitzena. Esker oneko zitzaion Neron, haren sabelek o fruitu izaki, eta Klaudio enperadorea bere senarra pozoitu zuelako, bera, semetxo kuttuna, jargoirra igo zedin. Ama ezin amorosago, Agripak ez zion, ordea, agintzen uzten, eta tarterik txikiena profi tatzuz ohean sartzan zitzaion loak hartuarena eginez. Gainetik kentzea neketsua izan zitzaion, beraz. Eskerrak ama bakarra den. Aldez aurretik esklabo zein abereekin saiaturik o edabexxit hilgarri bat edatera gonbidatu zuen Neronek, sabaia gai-

nera bota zion ohean zela, itsasontziaren gila zulatu... Hala-ko batean, horratik, ahal izan zuen negartu, azkenik.

Gero Rufo Krispino, Popearen semea, hil arazi zuen, enperadore izatera jostari zebilela-eta.

Eta aiztoa eztarrian berak sastakaturik, geratzen zitzaion senide bakarra ere akabatu zuen, noizbait.

Erromari barre eginiko poeta

Espainia izan zuen jaio eta herio lurra, baina Erroma bizitoki eta idazleku Martzial poetak.

Neronen garaiak ziren eta alemaniarrei hola deituta, barbaroen ilez eginiko ileordeak moda-modan:

*Ile horail hori bere-berea du.
Berak dio, eta ez dio gezurrik.
Nik badakit-bai non zuen erosi.*

Eta betileordeak:

*Begi keinuka zabiltz betazal azpian,
tiraderatik atera dezuna goizian.*

Egun bezalaxe, heriotzak hobetu egiten zituen poetak:

*Aintza eta loria hildakoei soilik.
Nahiago dut nik segi,
gorespenik gabe eta bizirik.*

Sendagilearen bisita zorigaiztoko zitekeen:

*Sukarrik batere gabe nintzen zu etortzean.
Zeuk ikusita, hara, berehala sutan.*

Eta zuzenbidea ere ez-zuzena zitekeen:

*Nork aholkatu zizun adulteroari sudurra moztearena?
Ez da moko mutur horrekin traizio egin dizutena.*

Irri terapia

Bere izenaz izendatu zuten haren ogibidea.

Gladiadoreen zauriak sendatzen ekin zion bere bideari Galenok, eta bukatu Marko Aurelio enperadorearen sendagile izaten bukatu.

Eskarmentuan zuen sinetsi, eta ustearen usteaz mesfi datu:

—*Bide neke eta luzea nahiago , zidor trebe eta laburra baino.*

Gaixoekiko bere lan urte luzetan, ohitura bigarren notatsuna dela egiaztatu zuen, eta osasuna eta eritasuna, bizitzeko erak: berez gaitxoberak ziren eriei ohiturak aldatzeko aholkatzen zien, beraz.

Ehunka min eta sendabide aurkitu edo azaldu zituen, eta osabide bila arituta honako hau berretsi:

—*Ez dago irria baino sendagai hobirik.*

Solas-jolas

Erromako enperadore, Hadriano andaluziarra bere arimari solasean, hura azken goiza izatekoa zela ohartzean:

*Ene arimatxo xamur kulunkari hori,
gorputzaren arrotz eta lagun haudana,
laster abiatuko haiz leku
zurbil, zurrun, biluzietara,
non orain ohi duan jolasik ez baituk izanen...*

Hankaz gorako mundua trufaka munduari

Botere erabatekoren jabe izan ohi ziren, egun batez, Erromako emakumeak. Emaginaldien jaiak bitartean, haiek nagusi; eta gizonak menpeko izateari bide emanik.

Behialako Babiloniak o Saze haien oinorde, Saturnaliak, Emaginaldien antzera, pek oz goitik o munduaren arintzeak ziren, astebetekoak. Hierarkien iraulk eta: aberatsak txiroen zerbitzari, berauek haien etxeak lepo bete, haien soinek oak jantzi, haien mahaietan bazkaldu eta haien oheetan lo egiten zutelarik. Saturno jainko oarenak omen, Saturnaliak abenduaren 25ean zuten g ailur. Eguzki Garaitug abearen eguna zen, mendeak geroago Eguberri izana, dekretu katolikoz.

Europako Erdi Aroan, Errugabe Deunen Egunean inuzenteei eskaintzen zitzaaien boterea, hurrei, inozoei, eroei. Inglateran *The Lord of Misrule*, Araugabetasun Jauna zen errege, eta Espainian Oilar Erregea eta Urde Erregea jargoi lehian, nor baino nor aritu ohi ziren biak, eta biak zoroetxe-koak. Apezpiku mitraz eta makilaz hornituta, haur bat izan ohi zen Eroen Aita santu eta eraztunari muin emanarazten zion jende guztiari, eta beste haur batek gotzain sermoiak zituen esaten, asto bizkarrean hizlari.

Hankaz gorako munduaren jai ororen antzera, askatasun une iheskorrok bazuten hasiera eta amaierarik. Labur zuten irauten. Alkatearen hitza, beti nagusi.

Irria debeku

Antzinako izadialdien jaiak Eguberria eta Aste Santua dute izen gaur egun, eta ez dira jada jainko jentilen omenaldi, euren egunak bete eta euren ikurrez jabeturiko jainkotasunaren gurtzekizun nagusiak baizik.

Erromak jaso edo asmatua izaki, Hilaria Jaialdiak udaberriaren etorrerari egiten zion diosala. Zibeles jainkosa ibaian bainatu ohi zen, euriari eta soroen emankortasunari deika, Erromako jendea, bitartean, soinekogutziz bitxi eta xelebrez jantzia zela, barrez eta irriz zilipurdika. Den-denak denei adar joka, ez baitzegoen munduan ezer, ez inor, irrigarri izateko duin ez zena.

Eliza Katolikoaren erabakiz, udaberriaren berpizkundera barrez ospatzen zuen irriaren jai jentil hau bat dator martxo oro, egunen bat edo beste gora behera, Jesusen berpizkunderarekin, ebanjelioek haren irri bakar bat bera ere biltzen ez duten arren.

Eta Elizaren erabakiz, halaber, alaitasunaren jaiak gailurra jotzen zuen gune bere-berean jaso izana da Vatikanoa. Bertan, jendetzaren alg arak durundan ziren plaza itzelean, egun Aita santuaren ahots astuna aditu ohi da soilik, inork inoiz irri egin gabeko liburua den Bibliaren pasarteak esaka.

Jainkotasun irribarretsua

Irribarretsu agertzen dute haren irudiek, ironia patxadatsuz, haren bizitzaren eta haren geroaren ikur izanik o paradoxei trufan edo.

Ez zuen jainkoengan sinetsi Budak, ezta bera jaungoikoa zenik ere, baina haren sinestunek jainkotu dute.

Ez zuen miraritan sinetsi Budak, ezta halak orik gauzatu berak ere, baina haren sinestunek ahalmen mirarigileak egozten dizkiote.

Ez zuen ezein erlijiotan sinetsi Budak, ezta halak orik sortu ere berak, baina denboraren irag anak munduko erlijio jendetsuenetakoa bilakatu zuen budismoa.

Ganges ibai ertzean jaio zen Buda, baina Indiako biztanleriaren ehuneko bata ere ez dute batzen budistek.

Aszetismoa izan zuen Budak prediku, grinari uk o eta mahaiari bizkar, baina txerrikiz lepo, betekadaz hil zen bera.

Sekulan irri egiten ez duen aitatxo bat

Jainkotasun bera gurtzen dute juduek, kristauek eta musulmanek. Bibliako jainkoa da, nork deitzen dion hiru izenek o

bera, Yahve, Jainkoa huts-hutsean eta Ala. Juduak, kristauak eta musulmanak elkar hiltzen aritu ohi dira haren aginduak betetzen dituztela aldarrika.

Beste hainbat erlijiotan, jainkoak ugariak dira edo izan dira. Olinpo asko izan zen edo da Grezian, Indian, Mexikon, Perun, Japonian, Txinan. Bibliako Jainkoa, ordea, jeloskorra da. Jeloskorra, nori baina? Zer dela eta hain kezkatu konpetentziaz, Bera baldin bada bakarra eta egiazkoa?

Ez ahuspeztu beste jainkoen aurrean, Jauna jeloskorra baita eta Jainko jeloskor du izena. (Exodoa)

Zergatik seme-alabengan zigortzen gurasoen desleialkeria, eta belaunalditan gainera?

Neuk Yahvek, zure Jainkoak, gorroto didaten gurasoen gaiztakeria ondorengoengan zigortzen dut hirugarren eta laugarren belaunaldiraino ere. (Irteera)

Zergatik egoten da beti horren aiko maiko? Zergatik horren mesfidati bere sinestunez? Zergatik mehatxuaren beharra men egin diezaioten? Aurrez eta zuzenean mintzaturik, edota igarleen ahotsez, zera ohartarazten du:

Yahve zure Jainkoaren esana egiten ez baduzu, jo egingo zaitu berak tisz, sukarrez, hanturaz, gangrenaz, idorre-riaz. Emakume bat hartuko duzu emazte, baina beste gizon batek egingo du bere. Hautsa eta harea izango dira zure lurtean euri. Hazi ugari eregingo duzue soroan, baina uzta kaskarra bilduko, larrapoteak irentsiko baitu. Mahastiak landatu eta landuko dituzue, baina ez ardorik edango, ezta mahatsik bilduko ere, harrak jango baititu. Gatibu eskainiko diezue zuen burua etsaiei baina ez da eroslerik izango. (Deuteronomioa)

Sei egunez lan egingo duzue, baina zazpigarren eguna larunbata da, Jaunari sagaraturiko atsedene-eguna. Larunbatez lan egiten duenak heriotza-zigorra izango du. (Irteera)

*Atera kanpalekutik ni madarikatu nauen hori; ezar bie-
zaiote eskua buruan aditu dioten guztiek; gero , hil beza
harrika israeldarren elkarte osoa. (Lebitarrena)*

Eraginkorra omen dira zigorrak sariak baino . Biblia
sinesgabeen aurkako zigor ikaragarrien katalogo hutsa da:

*Basapiztiak ditut askatuko zuen aurka. Zazpi aldiz gehia-
go astinduko zaituztet, zuen bekatuengatik. Semeen hara-
gia jango duzue, alaben okela jango. Zorrotik aterako dut
ezpata, zuen aurka. Zuen lurra eremu izango da eta zuen
hiriak, hondamen. (Lebitarrena)*

Gure garaiko mundua menperatua du Jainko beti haserre
honek, bere hiru erlijioen bidez. Ez da oso Jainko atsegina,
egia esanda:

*Bai, jeloskor eta mendekatzailea da Jauna, zorrotza haren
haserre. Jauna mendekatu egiten da bere etsaien kontra,
etsi egiten dio arerioenganako haserreari. (Nahum)*

Bere hamar aginduek ez dute guda debekatzen. Aitzitik,
egiteko agintzen du berak. Eta inorentzak o errukirik gabeko
gera da berea, ezta haurtxoentzakorik ere:

*Orain, beraz, zoaz, xeha itzazu amalektarrak eta suntsitu
haien ondasun guztiak; hil, gupidarik gabe, gizaseme eta
emakumeak, haur eta bularrekoak, idi eta ardiak, gamelu eta
astoak. (Samuel)*

*Babelen alaba, suntsitzaile hori: Bejondeiola, zure haurtxoak
hartu eta harkaitzaren kontra lehertuko dituenari! (Salmoak)*

Semea

Inork ere ez daki nola: Yahve, inoiz maitasuna egin gabeko
jainko bakarra, seme baten aita zen, ordea.

Ebanjelioen arabera, Herodes Galilean errege zenean
heldu zen semea mundura. Herodes kristau aroa hasi baino
lau urte lehenago hil zenez gero , Jesus gutxienez Kristo
aurretik lau urte lehenago jaioa zen, beharrik!

Zein urtetan, ez da ezagun. Eguna ere ez, ezta hila ere. Ordurako Jesus ia lau mende iragana zen jada urtebetetzerik gabe eta Gregorio N aziantzeno deunak jaiotze agiria eman zion, 379 urtean. Abenduaren 25 batean jaio ei zen Jesus. Horrela, behin berriro, idolatrien ospea bereg anatu zuen Eliza Katolikoak. Tradizio jentilaren arabera, horixe baitzen eguzki sakratuak, neguko lainoak zeharkatuaz, gauaren aurkako bere bideari ekiten zion eguna.

Gertatu zenean gertatu zela, lehen bake gau hura, maitasun gaua, ez zen ziur aski ospatu, egun sor eta gor utzi ohi gaituzten halako gerra suziriez. Ia ziur ez zela izan g abon irudirik jaioberrri hura izan inondik ere ez zen haurtxo kirrudun ilehoritzat erakusten zuenik; izan ez ziren bezalaxe, ez hiru, ez errege, ezta azti ere, hiru errege magoak ere egundo inork ikusi g abeko izar bidaiari baten atzetik Belengo askara bidean joan omen ziren hiru errege mago haiek. Eta era berean, ziur aski, tenpluko merkatarientzat hain berri txarrak zekartzan lehenengo Eguberri hark ez zuen izan, ezta izan nahi ere, munduko merkatarientzako hain salmenta ikusgarrien zantzurik.

Bila gabiltza

Jesus du izen.

Mesias diote esaten.

Ez ogibiderik, ez etxerik.

Jainkoaren semea dela dio, baita Zerutik jaitsia dela ere mundua sutan jartzeko.

Basamortuko bidelapur, herrixkak xaxatzen dihardu.

Berari jarraiki gaizkileak, gaiztaginak, gaizto biziak.

Paradisua hitz emana die zorigaiztokoei, esklaboei, eroei, mozkorrei eta prostitutei.

Engainatu egiten du jende xumea legenardunak sendatuz, ogi eta arrainak biderkatuz eta bestelak o zatikeriak eta sorginkeriak eginez.

Ez du aginte erromatarra errespetatzen, ezta tradizio judua ere.

Beti bizi izan da legez kanpo.

Hogeita hamahiru urtez dabil jaiotzean jasotako heriotza zigorrari ihesi.

Gurutzea du zain.

Astoa

Beroa eman zion Jesus jaioberriari, askan, eta horrelaxe ageri ohi postaltxoetan: arg azkitarako tente, bere belarritzarrak lehen planoan nabarmen lastozko sehaskaren ondoan.

Astoaren bizkarrean, salbatu zen Jesus Herodesen ezpatatik.

Astoaren bizkarrean, ibili zebilen bizitzan.

Astoaren bizkarrean, predikari.

Astoaren bizkarrean, Jerusalemen sartu.

Horren asto ote astoa?

Jesus berpiztu

Mazatekek, Oaxacan, diotenez, behartsuak eta zuhaitzak mintzarazteagatik gurutziltzatu zuten Jesus.

Eta diote luze penatu ondoren jaitsi zutela gurutzetik.

Eta lurperatua zen jada, bere heriotzan lo, kilkerra kirkil hasi zela.

Eta iratzarri zuen kilkerrak.

Eta heriotik atera nahi zuela Jesusek adierazi.

Eta kilkerrak satorrari esan, eta honek lur azpian bide luzea zulatu zuela haztaka, hura sartua zuten zerraldoraino heldu arte.

Eta satorra saguari laguntza eskatu, eta honek bere hortz zorrotzez hilkutxa ireki zuela.

Eta atera zen Jesus.

Eta hatz bakar batez mugiarazi soldaduek g ainean jarria zioten harkaitz itzela.

Eta eskerrak eman zizkion kilk errari, eta satorrari, eta saguari, hain txintxoak zirela izan.

Eta zerura igo zen, hegalik gabea zen arren.

Eta haitz itzela airean dantzan utzi zuen bere hilobi irekiaren gainean, eta beronen gainean aingeru bat jesarrita.

Eta aingeruak Maria andereari k ontatu, Jesusen amari, hori guztia.

Eta Maria andereak, ezin nonbait sekretuari eutsi eta auzokoei aipatu azokan.

Eta berarengatik omen ezagun.

Mariak

Ebanjelioetan, gutxitan ageri da Maria.

Elizak ere ez zion apartek o arretarik eskaini, duela mila urte inguru arte. J ende guztiaren amatzat sag aratu zuten orduan Jesusena, eta fede g arbitasunaren eredu izendatu. Hamaikagarren mendean, Eliza Purg atorioa eta derrigorrezko aitorpena asmatzen ari zela, Mariaren omenez laurogei eliza eta katedral erne ziren Frantzia.

Birjintasunetik zetorkion ospea. Maria, aingeruen eskutik jan eta usoari esk er haurdun, gizon eskuak egundo ukig abea zela. Joxe deuna, senarra, urrutitik ari ohi zitziola agur esanaz. Eta are sag aratuagoa izan zen 1854z geroztik, Pio IX.a Aita santuak, hutsezinak, agerian jarri zuenean Maria bekatu-rik gabea zela sortua, alegia, eta ulertzeko eran itzulita, birjina ere bazela Ama Birjinaren amatxoa.

Gaur gaurkoz Maria dugu munduk o jainkotasunik gurtuen eta mirari egileena. Ebak k ondenatu egin zituen emakumeak. Mariak berronbideratu. Berari esk er dute damu izateko aukera Ebaren alaba bekatariak.

Eta horixe zen gertatu beste Mariarekin, postaltxoetan gurutze santuaren pean ageri ohi dena, guztiz g arbiaren ondoan ageri ohi denarekin.

Tradizioak dioenez, beste Maria hori, Maria Magdalena, emagaldu hutsa zen eta santa bihurtu.

Haien barkamenaz umiliatzen dutela fededunek.

Maria berpiztu

Chiapasen birjaio zen Maria.

Simojovel herriko indio bat, lehengusu zuena, eta senide ez zuen Chamulak o ermitau bat, zuhaitz barrenean bizi zena, izan ziren haren berriemaile.

Eta Santa Marta Xolotepec herrian, arto uztan ari zela Dominika Lopezek ikusi zuen. Baselizatxo bat eraikitzek o eskatu zion Jesusen amatxok, mendian izarpe lo egiteaz nekatuta zegoelako. Jaramon egin zion Dominikak; baina egun gutxi barru apezpikua etorri eta Dominika, Maria eta beronen erromes guztiak eraman zituen atxilo.

Orduan Mariak espetxetik alde egin, eta Cancuc herrira jo zuen, eta bera ere Maria zeritzan neskato baten ahotik mintzatu.

Maia tzeltalek sekulan ez zuten ahantzi hark esanik oia. Beraien mintzoan aritu zen, eta ahots urratutxoaz zera agindu, *ez uko egiteko emakumeek beren gorputzen grinari, bera pozik baitzen honekin;*

ezkontzeko berriz, nahi izanez gero, emakumeak beste senarrekin, apaiz espainiarrek eginiko ezkontzeak ez baitziren onak;

eta betea zela jada, uztarritik jaregin eta lurrak eta askatasuna berrezartzeko igarpena, eta ez zela harrezkero zergarik, ez erregerik, ez apezpikurik, ez alkate nagusirik.

Eta Zaharren Kontseiluak aditu zion eta men egin. Eta 1712 urtean, hogeita hamabi herri indio ziren matxinatu armak eskutan.

Santa Klaus sortu

Bere lehen irudian, New Yorkeko *Harper's* aldizkarian 1863an argitaraturiko horretan, tximiniatik sartzen zen gnomo potxoloa zen Santa Klaus . Thomas Nast marrazkilariren eskutik jaio zen, Nikolas deunaren legendetatik lausoki eratorria.

1930eko Eguberrietan, Coca Colak hartu zuen soldatapeko Santa Klaus. Ordura arte, ez zuen uniformerik erabiltzen eta gehienetan arropa urdin edo berdeak nahiago . Enpresaren koloreez jantzi zuen Habdon Sundblon marrazkilariak, gorri bizi-biziz, ertzak zuri, eta denok ezagutzen ditugun trazuak emanaz. Bizar zuria darama haurren lagunak, etengabe irriz, leran bidaiatu eta hain da mozkote ezen ez baitago jakiterik nola arraio moldatzen den munduko tximinietatik barna, opariz lepo eta Coca Cola bana eskuetan.

Ezta jakiten ere zertan duen zerikusirik Jesusekin.

Infernua sortu

Eliza Katolikoak asmatu zuen Infernua, baita Deabrua ere.

Itun Zaharrak ez zuen betiereko burduntzi hori aitatu ere egiten, ezta bere orrietan agerrarazten ere halako mamurik, sufre usaineko, sarde erabiltzaile, isats eta adardun, atzapar eta apatxen jabe, aker hankadun eta herensuge hegaldunik.

Elizak bere buruari galdetu zion, baina: Zer gertatuko da sariaz, zigorrik gabe? Zer obedientzia, beldur barik?

Eta zera ere galdetu: Zer izanen da Jainkoaz Deabrurik gabe? Zer Ongiaz, Gaizkia barik?

Zerua, balizko sari baino, Infernua, mehatxu garbi, eraginkorragoa dela egiaztatu zuen Elizak, eta harrezko bertoko doktore eta aita sailduak, izuikaratzen gaituzte Txerren errege omen den amildegietako sufrikarioa iragarritz.